

2009KO OTSAILAK 16

16 DE FEBRERO DE 2009

ORGANOA: UDAL BATZARRA

ORGANO: AYUNTAMIENTO PLENO

BATZARRALDIA: EZ OHIKOA

SESION: EXTRAORDINARIA

TOKIA: UDALETXEKO OSOKO BILKUREN ARETOA

LUGAR: SALON DE PLENOS DE LA CASA CONSISTORIAL

EGUNA: 2009KO OTSAILAK 16

DIA: 16 DE FEBRERO DE 2.009

HASIERA ORDUA: 18:00

HORA DE COMIENZO: 18:00

LEHENDAKARIA: Iñaki AGIRREZABALAGA ALKORTA.

PRESIDE

ZINEGOTZIAK: BERTARATUTAKOAK

CONCEJALES: ASISTEN

Maria Eugenia ARRIZABALAGA OLAIZOLA  
Andoni ETXANIZ OSA  
Miren Nerea EPELDE AZKUE  
Joseba Josu AZPIAZU AZKARRAGA  
Pilar ETXABE IRIONDO  
Emiliano CABAÑAS GONZALEZ  
Cristina FORCADA UNANUE.  
Paloma HEREDERO NEGREDO  
Manuel ZUBIA ARTABE  
Unai MANZISIDOR ANDONEGI  
Xabier OLAIZOLA ANTIA.

EZ DIRENAK BERTARATU:

NO ASISTEN:

Lide AMILIBIA BERGARETXE

IDAZKARIA: LIOBA MAIZA RECONDO

## SECRETARIA

Alkate jaunak bilera eratutzat ematen du. Se da por constituida la sesión por el Alcalde-Presidente.

**ALKATE-LEHENDAKARIA:** Seirak eta hamar diren honetan, ezohiko Pleno honi hasiera ematen diogu, bidali zaizuen segidako eguneko aztergai horrekin.

Dakizuen bezala, aurrekoan ere hasi nintzen egiten baino oraingo honetan eta gainera gai luzeak dauzkagulako bi interbentzio egongo dira talde bakoitzeko, aurrengoan bost minutu eta bigarren goan bi minutu, nik usten dut nahikoa dela zeren aurrekoan ere bakarrikan interbentzio bat pasa zen eta hala eta guztiz ere bi ordu t'erdian egon ginen eta iruditzen zait nahiko denbora dela, besterik gabe

Aurrengo puntua: **2009KO EKITALDIKO AURREKONTU OROKORRAREN HASIERAKO ONARPENA, BIDEZKO BADA.**

Josebak Ogasuneko batzordeburu bezala esplikatuko digu

**JOSEBA JOSU AZPIAZU AZKARRAGA JNA.:** Arratsaldeon guztioi, berriz ere ez dakigu zer gertatzen den, baina teknologiak ez du funtzionatzen.

Aurreko urtean ere ipini behar izan genuen hona begira eta aurten erabaki dugu izkinera begiratzeko ez ipintzea, kuestioa, aurrekontua azken batzordeetan ikusi dena eta hemen dagoena da eta pixka bat historia egiteko aurkezpena abenduaren 22an egin zen, beste hiru batzorde egon dira: urtarrilean bi eta otsailean azkenengoa diktamena egin zena, aldaketa txiki batzuk egon dira baina bere estruktura, azpiegitura, hasierako aurrekontuetatik honeraino ez da asko aldatu, zerbait azpimarratzekotan pertsonal gastua hasiera batean % 23 eta piko igotzen zen, 2008ekin konparatuta eta orain igotzen dena % 16,72 da.

Gero aldatu diren beste partidak oso txikiak izan dira, udaleko aurrekontuekin hasiko naiz, liburuan daukazue zortzigarren orrian, memoriako zortzigarren orrian edo hor behintzat badago, nahi baduzue ikusi esan behar dudana, hori da eta paperetik esan da berdin berdina da, ez baduzue ikusten.

Sarreretan, kapituloka hasiko naiz lehenengo kapituluan zerga sozialean 2008ekin alderatuta %7 a igo da; zeharkako zergak bigarren kapitulua jeisten da % 41a, zergatik ba.. obretako zerga aurten lehenengo urtean baino askoz ere gutxiago izango delako, obra gutxiago daudelako.

Hirugarren kapituluan, tasena, % 5a igotzen da.

Laugarren kapituluan transferentzi arrunta % 1 jaisten da, hemen garrantzia dauka FOFIM-en dirulaguntza gutxiago izango dela aurreko urtean baino, eta esan beharrik ez dago, galera ez dela bakarrik gutxiago izango dela, baizik eta nola normalean orain arte urtez-urte kopuru haundiagoa, dexente haundiago hartzen zen, jeisten dena gehi ez dena igo, hemen asko nabaritzen da laugarren kapitulu hontan.

Bostgarren kapituluan ondarezko sarreretan % 33a igotzen da, baina dirulaguntza hauek, barkatu, dirusarrera hauek txikiak dira, orduan % 33 hori ez da horrenbeste.

Seigarren kapituluan ez dago ezer lehengo urtean aprobetxamendu urbanistikoak zeuden eta aurten ez dago batere,

(Bostgarren kapituluan, ondarezko sarrerak, horiek dira.... dauden...

Bostgarren kapitulua sarreretan, zenbat azaltzen dela? Hori Power pointekoa, hor ere egon beharko litzateke ondo, zeren hor dauden datuak eta Exce-lekoak berdinak dira, ze orritan dago hori?...)

Ondo dago, igual bigarren orria begiratu duzu, bakoitzak bi orri dauzka, sarreraren aurrekontuak dauzka bi orri eta gastuenak beste bi, asmoa neukan hau ordenagailuan ematea baina gertatu denarekin ba...

Lehenengo orrian konturatzen bazara sarreraren aurrekontu propioan % 33a azaltzen da, 33,40.-)

Zazpigarren kapituluan nihoan, hor 2008ekin alderatuta igotzen da % 29 a. Finantza aktiboa mantentzen da berdin-berdin, beti bezala, zortzigarren kapitulua, eta bederatzigarren kapitulua hau da eskatu beharko litzatekeen mailegua baita ere igotzen da ia % 20a, eta azkenean bi miloi lauhun eta hemeretzi milakoa izango da edo aurreikusten da, honek nahi du esan dirusarrerak orokorrean 2008 baino 2,86a gutxiago dela.

Gastuei dagokionez, lehen esan dudan bezala pertsonal gastua 2008rekin alderatuta % 16,72 igotzen da.

Bigarren kapitulua gastu arruntena % 11a.

Hirugarrena, interesena gutxitzen da % 58an.

Laugarrena, transferentzi arruntena %2,12 igotzen da.

Seigarrena, inbertsioena % 26,56 jeisten da. Hemen kontuan hartu behar da nahiz eta aurrekontuetan ez dauden, denok dakigun bezala beste 1,7 miloi erabiliko dela inbertsioetarako, Gobernu Zentraletik etorri dena.

Zazpigarren kapituluan % 60a jeitsi da, baita, kapitalezko transferentzietan.

Zortzigarrena ere berdin mantentzen da,

Eta Bederatzigarrena jeisten da %33, momentuz prestamodurik ez delako eskatu, hori da Udal Aurrekontuak gutxi gora behera kapituloz-kapitulu, eta hemen azpimarratuko dut inbertsio garrantzitsuenak, gutxi gora behera kopuruagatik, hiru edo lau esango dut besterik ez:

Jadarre berurbanizatzea ia bederatzirehun mila euro;  
Narrondoko pasabidea berrehun eta laurogehita bi mila euro;  
Alondegirako exekuzioa hirurehun mila euro;  
Artadi eskola botatzeko proiektua ehun eta laurogehi mila euro eta zerbait azpimarratzekotan bide publikoetako obrak berrehun eta berrogehitahamar euro, horiek dira kopuru haundienak esan dudana bezala.

Gero Musika patronatuan, dakizuten bezala lau aurrekontu daude bat Udalarena, Musika Patronatuarena, San Juan Egoitzarena eta Zumaia Lantzen-ena.

Musika Patronatuan diru sarrerari dagokionez hiru kapitulu bakarrik daude, hirugarrenak ez dauka batere garrantzirik bostehun euro direlako, Laugarren kapitulua hau da garrantzitsuena, Udalak ematen dion dirulaguntza % 12a igotzen da eta gastuei dagokionez, bigarren kapitulua gastu arrunta % 7a igotzen da; transferentzi arrunta % 15a; inbertsio errealak % 150; hau zergatik? Inbertsio hau oso txikia zen eta txikia da oraindik ere eta portzentaiak pixkat engainatu egiten du.

Eta zazpigarren kapituluan gutxitu egiten da.

Orokorrean Musika Patronatuko aurrekontua % 12,28 igotzen da.

LIDE AMILIBIA BERGARETXE, zinegotzia etortzen da,

San Juan Egoitzako Aurrekontua: dirusarrerari dagokionez hirugarren kapitulua % 4a igotzen da, tasena,

Laugarrena transferentzi arruntak % 3,74 eta zazpigarrenak garrantzia dauka zeren hor jasoko da dirulaguntza bat, San Juan Egoitzan erreforma proiektu bat egin behar delako eta hor jasoko da % 75eko dirulaguntza: 450 mila euro.

Eta gero gastuei dagokionez, hor ere nabarmentzekoa da inbertsioetan lehen ez zegoen ezer eta orain seirehun mila euro daudela, proiektu hori dela eta,

Baita ere Pertsonal gastuak San Juan Egoitzan % 10a igotzen dira eta gastu arruntak % 4 a eta gero azkenik,

Zumaia Lantzen-ena, hemen onartu zen Plan de actividades eta baita ere aurkeztu zen 2009tik eta 2012raino, oker ez banago berrogehi mila euro inguruko aurrekontua zen, baina 2009ari dagokionez bataz-besteko horretan azpitik dago eta suposatzen dut hurrengo urteetako aurrekontua haundiago izango dela; aurten Zumaia Lantzen-ena dagokionez aurrekontua lau miloi hirurehun eta hamazazpi mila eurotako da, eta ez dakit horko inbertsioak etbr. Plan de Actividadesen daude eta usten dut denok badakigula zeintzuk diren eta nik printzipioz ez daukat besterik esateko, orain emendakinak etbr.. daude, hor sortuko dira eztabaidak, pentsatzen dut....

ALKATE-LEHENDAKARIA: Besterik gabe, alderdi politikoak nahi baldin baduzue turno bat irekiko dugu, M. Eugenia?

M. EUGENIA ARRIZABALAGA OLAIZOLA AND.: Bai galdera bat, emendakinak aipatzen dituela Josebak, zein izango da botazio prozedura?; emendakinak botatuko dira edo bere horretan aurkezten dezuen aurrekontuaren dokumentua zuzenean?

ALKATE-LEHENDAKARIA: Emendakinak, batzordean oker ez baldin banago, aipatu ziren bezala, aipatu ziren ze emendakin onartu ziren, barneratuak izan ziren eta zein ez. Piztu, faborez, Joseba mikrofonoa

JOSEBA JOSU AZPIAZU AZKARRAGA JNA.: Bai egia esan da, emendakinak Ezker-Batua Aralarrek aurkeztu dituen partzialak, denak sartuta daude, aurrekontu hauetan txertatuta daude, orduan pentsatzen dut gero beraiek nahiko dutela azpimarratu hori, alde horretatik ez dut esan, baino lehengo urteetan esaten zen aurkezpena eta gero osotasunezko emendakinak, kasu honetan PNV-rena, hori bozkatu eta gero partzialak, baino partzialak txertatuta daudenez, pentsatzen dut ez direla bozkatu behar, ez dakit...

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Bai, usten dut hori esplikatu zela batzordean, baina bueno, emendakin partzialak dagoeneko onartuta daude, esplikatuta ere bai pentsatzen dut batzordean, haziendako batzordean zein izan ziren, eta nola osotasunezko emendakin bat dagoen, ba... osotasunezko emendakina aztertuko dugu.

JOSEBA JOSU AZPIAZU AZKARRAGA JNA.: Eta beste gauzatxo bat, partehartze prozesuari dagokionez, azken batzordean diktamena egin zenean banatu zen txostena lehenetsitako proposamenena, hor esplikatu nuen zeintzuk diren txertatuta daudenak, gero igual Andonik hobeto esplikatuko du, hori,

ALKATE-LEHENDAKARIA.: M. Eugenia,

M. EUGENIA ARRIZABALAGA OLAIZOLA AND.: Bai, arratsaldeon,

Hain zuzen ere gure udal taldeak osotasunezko zuzenketa bat aurkeztu zuen, epe barruan, nahiko arrazoi zeudelako, daudelako gure ustetan, 2009rako proposatzen diguzuen aurrekontu orokorren dokumentu honetan.

Diru publikoa ahalik eta zorroztasun handienarekin kudeatu behar dela beti ulertu izan dugu, baina gainera gaur egunean bizi dugun krisiaren aurrean, ezinbestekoa dugu lehentasunak ezarri eta erakunde desberdinek (EUDEL-ek, Foru Aldundiek, Eusko Jaurilaritzak eta diren gainontzeko erakunde guztiek) gomendatzen dizkiguten neurriei jaramon egitea egoera latz honi aurre egiteko.

Aurkeztu zaizkigun aurrekontu hauetan gomendio hauek ez dira aintzakotzat hartzen (alegia gastu arruntaren murrizketa, edo inbertsioen hazkundera ...) eta erakunde publiko gehienek egoera honetan hartu dituzten neurrien aurkakoa egitea erabaki duzue Zumaian.

Kontu hauek ezartzen duten joera jarraitzen badugu, Zumaia Udala porrot teknikoko egoera batera iritsi daiteke epe labur batean eta EAJ-PNVko udal taldeak ezin du hondamendira garamatzen konturik babestu.

Iaz abstenitu egin ginen, eta zuzenketa partzialak ere proposatu genituen. Ordurako, ia krisia ate joka ari zitzaigun, eta hori agerian utzi nahi izan genuen. Gure saiakerak ez zuen gobernu-taldearen aldetik inolako erantzunik merezi izan. Jadarreko aparkalekuari, ezetz esan zeniguten; San Jose kalekoari ere, ezetz. Larretxora igogailu bat jartzeko eskaerari, ere ez. Zumaia Lantzen-ek bere proiektuak behar bezala gauzatzeko beharrezkoak zituen aurrez onartutako diruarekin ez dakigu azkenen zer gertatu den.

Basusta-bideko auzunea erabat eraberritzeko eskaerari, ezer gutxirako balio izan duen 100.000 eurotako partidatxo batekin erantzun zeniguten, eta Erkibe erosteko zeuden diruak desagertu egin dira.

Argi geratu zen, eta oraingoan hori berretsi egiten da, Udal-gobernuaren lehentasunetan ez dagoela, inolaz ere, krisi-larri garai honetan, Udal-kontuen bizi-iraupena bermatuko duen neurririk hartzea.

(Hau itzultzailearentzat, eta fotokopia ateratzen badugu)

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Tiempo muerto,

M. EUGENIA ARRIZABALAGA OLAIZOLA AND.: Ea orain moldatzen garen hobeto.

Kontua da eta kapituloz-kapitulu aipamena eginez, Pertsonaleko gastuei dagokionez 2007. urtetik pertsonal gastuak neurri gabe hazten ari dira; igoera Udaleko langile kopuruaren eta ezartzen zaizkien soldaten igoerari zor zaio. 2008. urtean kapitulu hau % 23,13 an igo zen eta orain 2009rako nonbait % 16ko igoera proposatu zaigu.

Egia da, guk, osotasunezko zuzenketa hau prestatu genuenean, gure kalkuluen arabera, edo geneukan dokumentazioaren arabera, igoera hori % 22,7koa zela, nonbait jeitsi egin da eta badirudi jeitsiera hori dela, hain

zuzen, 2009rako hasieratik KPI-a % 5 eta piko aintzakotzat hartzen zutelako proposamena egin zutenak, eta orain berriz, nonbait, zuzendu egin dute iazko 1,9ra.

Hori baldin bada arrazoia..., ez baldin bada arrazoia..., esan. Eta hori baldin bada arrazoia, guk emendakina publiko egin genuen eta ezker abertzaleak gogor erantzun zigun guk azaldutako arrazoiei eta arrazoi horiei..., eta horien artean % 5eko igoera hori, esanaz ez zela horrela, etbr... ez dakit, eta nahiko nuke, bi hitzetan besterik ez bada, gero horren aipamena egingo bazenute.

Edozein modutara, Pertsonalaren igoera honek herriko zerbitzuen hobekuntzan eraginik izan ez duela iruditzen zaigu eta azpikontratutako zerbitzuen prezioa murriztu ordez pertsonal propioa hazi da, baina Udaletik azpikontratutako zerbitzuengatik ordaintzen den prezioa, aldi berean, igo egin da, eta asko gainera.

**GASTU ARRUNT**Ari dagokionez,

Legealdi honetan salatzen dugun beste gaietako bat gastu arruntaren hazkundera da. Bai iaz, bai aurten ere

- 2007tik 2008ra %30,8baino gehiagoko igoera izan zuen kapitulu honek eta urte honetarako %10etik gora proposatzen da. Krisi egoerari aurre egiteko beharrezkotzat jotzen den beste neurrietako bat -eta hori, behin eta berriz entzuten dugu, arduradun edonoren ahotik-, gastu arruntaren murrizketa edo gutxienez horren mantentzea da, baina hori horrela izanda Udal gobernua igoera planteatzen du, eta lehen aipatu dudana bezala gainera, badakigu, orain arte horrela izan delako, edo gutxienez guk egiten dugun balorazioa horrela da, zerbitzuen hobekuntzarekin bat ez datorren hazkundera planteatzen dela.

**SARRERETAN** aldiz, ba... igoera azken bi urteetan, bata bestearekin gehituz, % 11 gutxi gora behera izan bada, ba inolaz ere ezin daiteke alderatu sarrerak izandako igoera hori, gastuak izan duenarekin % 40a izanda. Beraz, bata eta bestearen desfasea nabarmen geratzen da.

**AURREZKI GARBI**Ari dagokionez,

Aurkeztutako aurrekontuen emaitzek aurrezki gordinaren erabateko jaitziera dakarte. 2007. urtean Udalak zuen aurrezte gaitasuna, diru sarreren 100euro bakoitzeko 24 eurotakoa zen, eta gaur egun diru sarrera berberarengatik, hau da 100 euroko sarrera bakoitzeko ba.. gutxi gora behera 2 euro besterik ez dira aurreztu ditzazkeenak, gainontzekoa desagertu egiten da eta hainbat kontu desberdinetan ba... hori gastatu (pertsonalaren igoera dela, gastu arrunta etbr,...) horren ondorioz aurrezte maila oso da txikia eta horrek eragin zuzen-zuzena dakar inbertsio ahalmenean, (hori ez daukagu esplikatuko beharrik denok dakigu eta

dagoeneko nola den, aurrezpenik ez baldin badago, ez dago inbertsiorik edo inbertsioak egin behar dira kreditu edo zorren kontra.

INBERTSIOAK, berriz

2009rako 3.000.000 euro inguru dira, eta 2008an aurreikusi zirenak baino %24, gutxi gora behera, gutxiago.

UDALAK DUEN ZORRA berriz gora

Garbi dago EA-ANV gobernu taldeak kreditura jo beharra daukala kontuak koadratzeko. 2007. urtetik, orduan pasibo finantzarioak 675.000€ ziren, 2009an planteatzen den kreditura dago %285,83ko igoera. 2009rako 2.603.020euro baino gehiago planteatzen dira eta. Eta guretzago datu horien aurrean, gainontzeko komentarioak soberan daude.

Gastuaren hazkundearen eskutik, inbertsioak egiteko zor gehiago eskatzen bada, horrek, berez, dakar interes gehiago ordaindu beharra eta azken finean gaur egungo kontuak nolabait salbatzeko ba... datozen urteetarako geroz eta karga gehiago eta gauzak egiteko, herrian zehar gauzak egiteko ahalmen txikiagoa.

LUR PUBLIKOAREN POLITIKA ere aipatu genuen bere egunean, eta gaur ere aipatu nahi dugu, guretzat, ba... gure kudeaketaren funtsezko kontuetako bat izan da. Beti pentsatu izan dugu benetan eraginkor izan nahi badu edozein erakunde publikok horretarako beharrezkoak dituen ahalegin guztiak egin behar dituela, hau da, lurraren jabetza publikoa izan dadin, bestela, ba... bueno momentu honetan egia da gauzak geldirik daudela oro har, baina denok ezagutu ditugu azken urteetako mugimenduak, lurra eta bere prezioen inguruan, beraz, beti saiatu izan gara lur publikoaren politika zaintzen. Baina aldiz ikusi dugu aurtengo presupuesto hauetan ez dela agertzen eta erantzungo diguzu ez dakit zer txosten juridikoen arabera eskuan daukazuten batek diola, ba... kiroldegiak edo kultur etxeak egitea ere lur publikoaren politika egitea dela, eta guk horri erantzuten diogu, hori konzeptuei tranpa bat egitea dela, gauza bat dela etxebizitza sustatzeko lurra izatea eta beste bat da ekipamendu publikoetarako inbertsioak bideratzea eta oso oso larria iruditzen zaigu

ALKATE-LEHENDAKARIA.: M. Eugenia, faborez, joan zaitez bukatzen,

M. EUGENIA ARRIZABALAGA OLAIZOLA AND.: Bestaldetik, Basustagainean zegoen lur erreserba publikoa ere, bertan behera erori da inolako mugimendurik egin gabe, eta bateren batzuk egunen batetan

zerbait pentsatuko dute baina iada, nekez izango da udala eremu horretan zer esana izango duena.

#### HERRITARREN PARTAIDETZA

aipatu duzute eta Andonik esan duenez, orain adieraziko dizkigu partaidetza prozesu horretatik ondorioeztatutako kontuak nola txertatu diren eta non dauden agertuko dituela, gure ustetan guk Udal honetako ordezkari bezala eta herri honetako herritarren ordezkari izan da, ba.. merezi genuen izan duguna baino informazio dexente gehiago prozedura horren inguruan. Eta gaur esplikatzen eta xehetasunak ematen saiatzea ba.. bale, entzungo ditugu baina nekez izango zaizkigu baliogarri inolako balorazioak, geure balorazioak egiterako orduan.

#### HIRIGINTZAn berriz

Aipatzen genuen badaudela zenbait atzerapen eta zenbait konturen artean kezkutzen gaituzten kontuak, eta horien artean ba... Torreagatik kobratu beharko liritezke, 3.700.000euro inguru horien nonbait ez kobratzeko asmoaz, zeren 2009ko aurrekontuetan ez Zumaia Lantzenen ekintza planean ez baida agertzen hori kontabilizatuta, nik ez dakit etsita zaudeten edo noizko lagatzen duzuten horren kobratzea, baina benetan kinka larria jartzen du ba... ustez gero Zumia Lantzenen ekintza asmo horretan azaltzen dituzuen egiteko asmo guzti horiek.

Eta arrazoi guzti hauek ba... nahikoak iruditu zitzaizkigu osotazuneko emendakina sartzeko.

Horretaz aparte beste batzuk ere badaude. Eta egia da, noski, dokumentuan zehar gauza bat eta bestea, bata bestearen atzetik aztertu ezker, badaudela ere egingarri eta gure ustez egin beharrekoak direnak ere, baina orokorrean aurrekontuaren arkitekturaren diseinua erabat okerra da eta Udala urtebetera, ba... ez dakit nola izango garen, baina ez du batere egoera ekonomiko onean usten, guk ez dugu izan nahi horren erantzule, beraz, gurea ezezko botua izango da aurkezten duzuten aurrekontu proposamenari.

ALKATE-LEHENDAKARI.: Nik bakarrik gauza bat, alferrikakoa da nik Plenoaren hasieran esatea zenbat denbora emango dudan, gero ez baldin badugu hori errespetatzen, Josebak hamabi minutu egin ditu eta M. Eugeniak hamasei minutu.

Eskatuko nizueke, faborez, denei lehen esandakoaren arabera que seamos concisos y breves, eskerrik asko, Emiliano

M. EUGENIA ARRIZABALAGA OLAIZOLA AND.: Barkatu Iñaki, baina “claro concisos y breves” esateko horretan, gure arrazoiak ere azaldu beharko ditugu, edo zuek esan zarete nik dakidala beti hemen adierazpen askatasuna eta zuen arrazoiak arrazoitzeko eskubidea aldarrikatu izan dezutenak, orduan badakit denbora behar dela baina usten dut “que el asunto lo merece”.

ALKATE-LEHENDAKARI.: Hala eta guztiz ere, orain dela gutxi politikari bati entzun nion bezala luze eta zabal jardun daiteke hamabost minutuan edo hogeitahamar minutuan baita ordu betean ere, kuestioa da zenbatekoa nahi dugun Plenoa izatea. Jakin da gai ordena zenbatekoa den eta nik usten dut denak eskertuko luketela hemen gauden zinegotzi guztiak, ahal den neurrian eta bakarrik esan dudana, behin bakarrik esan dizut, faborez mozteko esanaz, usten dut denon onerako hobe dela ser breves y concisos, besterik ez, Emiliano

SR. EMILIANO GONZALEZ CABAÑAS.: Yo antes que nada, saber un poco donde nos encontramos, porque si estamos debatiendo la enmienda en la totalidad del PNV, no creo que tengamos que intervenir el resto, salvo si estamos en contra o a favor, yo creo que el turno a favor lo haría el PNV, yo no voy a hacer ni mi intervención ni a favor ni en contra, no sé lo que harán los demás, creo que en el tema de presupuestos primero habrá que saber en qué queda la enmienda en la totalidad para entrar luego después en los presupuestos en sí. Por eso entiendo que ahora no sé esta intervención si es necesaria.

En cuanto al tiempo estoy de acuerdo contigo, lo que pasa es que quizás tendríamos que empezar por tener un poco más de, aunque parezca un poco fuerte, de respeto al propio Pleno, porque si no fueran los presupuestos que ya por sí solos debería de ser un Pleno monográfico sobre presupuestos, como se hace normalmente que dá lugar al debate íntegro sobre ello, y es muy positivo, si no fueran los presupuestos sería el tercer Pleno sobre mociones. Y yo lo que exijo a la Comisión de Gobierno es que tenga un poco más de respeto hacia el Pleno, que sean Plenos de gestión porque sino la verdad es que no merece ni la pena pues venir porque son todos Plenos de mociones y yo no sé donde están, que tipo de gestión municipal hay dedicado única y exclusivamente a los Plenos a mociones, la verdad es que me gustaría que eso se aclarara alguna vez.

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Bueno, primera aclaración se han presentado los presupuestos, lo hemos oído. No sólo se han presentado aquí los presupuestos que se han presentado sucintamente, porque de todas

formas lo íntegro del presupuesto y el meollo de la cuestión se ha cocido sobre todo en las diferentes comisiones que ha habido, por lo tanto eso punto número uno y punto número dos como digo se han presentado los presupuestos, empezamos a votar si no ha quedado claro lo digo la enmienda a la totalidad del PNV que es lo que vamos a votar primeramente y posteriormente el presupuesto que presenta el equipo de Gobierno y tercero, respeto por supuesto al Pleno pero también a todos los grupos políticos que están aquí presentes y que tienen el derecho de presentar cuantas mociones quieran presentar, y aquí nadie es quien para decirle al otro lo que tiene que presentar ó dejar de presentar.

Yo, como Alcalde-Presidente de este Pleno acepto las mociones que se presentan y las traigo aquí, otra cosa es que esté de acuerdo o nó esté de acuerdo con las diferentes mociones que se presentan,

MANU ZUBIA ARTABE JNA.: Barkatu Iñaki, Tartetxo bat, bakarrik

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Bai,

MANU ZUBIA ARTABE JNA.: Como bien ha dicho Emiliano, yo creo que hay un tema que son los presupuestos y lo que no se puede equiparar igual, agian da, unos presupuestos con cada una de las mociones, igual lo que hay que hacer es repartir el tiempo mociones, por poner un ejemplo: dos minutos y a los presupuestos una hora.

Ez dakidana da ze denbora eraman behar dugun gai bakoitzarekin, nik usten dut oso desberdina dela presupuestotaz hitzegin edo mozioetaz, nahiz eta errespetu guztia eta eskubide guztia eduki alderdi politiko guztiek, nik hori bakarrik,

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Arrazoia ematen dizut eta horregatik askoz ere flexiblio izan naiz hemen, nahiz eta denbora guztira pasa eta ondo pasa eta hirukoiztu, horregatik flexiblio izan naiz aurrekontuei buruz hitzegiten ari garelako, Cristina edo Xabier.. Emilianok usten dut bukatu duela,

XABIER OLAIZOLA ANTIA JNA.: Guk zirriborroa ematen zaigunean aurrekontuen lehen zirriborroa, bai konturatzen gara pertsonal gastua asko igotzen dela, baina orain ikusten dugu % 16a bakarrik igotzen dela, baita ere soldatarena komentatu da hemen, soldatak igo dira Udalhitzek markatzen zuena, oker ez banago eta gainera Pleno honetan pasa ondoren.

Diru sarreretan jeisten da diru asko, beraz, gastu arrunta igotzen bada normala da kapital gastua jaitea eta horrekin inbertsioak.

Egiten diren edo aurreikusirik dauden inbertsioekin ados gaude, nahiz eta emendakin batzuk bai aurkeztu ditugula, moilako zubiaren irrisgarritasun ikerketa bat egitea pentsatzen dugulako oso egoera txarrean dagoela, UEMAn sartzea udaletxea, Udalerri Euskaldunen Mankomunitatean beharko lukeela Zumaiaiko Udala pentsatzen dugula etbr. emendakin guztiak onartuak izan dira, baina zirriborroak dion bezala, zirriborroa begiratzen ari ginen bitartean, konturatzen gara berriro ere Zumaia Lantzen kudeatzen duen enpresak izugarritzko dirutza jaso behar duela, gure ustez Udaletxetik egin beharko litzatekeen lan bat egiteagatik, kudeaketa lan hori egiteagatik.

Ikusten dugu laurehun miloi pta. Eraman behar dituela hurrengo urteetan eta Aralar ez, baina bai Ezker-Batuak lehengo legealdietan kritikatu izan duen bezala Zumaia Lantzen kudeaketa hori, guri iruditzen zaigu bukaera iritsi dela eta behingoz hori aldatu egin behar dela eta garrantzi gehiena ematen diogu Zumaia Lantzen udaletxetik kudeatu ahal izatea, beraz negoziaketa batean sartzen gara, gure emendakin guztiak onartzen dira eta Zumaia Lantzenek kudeatzeko Esarbe kentzea erabakitzen du Udal Gobernuak negoziaketa baten ondoren, beraz oso positiboki hartzen dugu guk hori, pentsatzen dugulako azken urteetan enpresa pribatu horrek eramane duen dirutza, ez dakigu ere ez da zenbat den eta igual hobe ez jakitea, eta aurrera pauso garrantzitsua iruditzen zaigu, enpresa pribatu batek, esaten ari gara pertsonal gastua igotzea asko dela hirurehun mila € igo direnean eta enpresa horrek bi miloi € eramane behar zituenean, usten dut desberdintasuna haundia dela, ez?

Gauzak horrela aldeko botua emango diogu presupuesto honi, berriz diot, emendakin guztiak onartu direlako eta inbertsioak, aurrekontu honetan agertzen diren inbertsioekin ados gaudelako, besterik gabe aldeko botua emango diogu,

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Nereak? Andonik? Andoni

ANDONI ETXANIZ OSA JNA.: Ez dakit, PNV-k aurkeztutako osotasunezko emendakinaren aurrean hitzegin, horren inguruan, igual, ni bozkatzera pasatuko nintzateke, nik aurkezten duten emendakinaren inguruan, komentario bat edo beste, bai, egin nahiko nieke, eskatu didate zer bait argitzea eta bueno saiatuko naiz argitzen edo esplikatzen,

Bueno, egia, da komunikabideetan eduki duela Ezker Abertzaleak PNV-rekin horrelako dialogo bat, ez dakit, si ha sido de sordos, edo zer, baina bueno, behintzat, beroiek egindako prentsaurreko edo prentsa ohar bati bai

erantzun diogu, gure erantzuna gogorra izan dela iruditu zaie, baino neri benetan iruditu zitzaidana zuen prentsaurrekoa edo prentsa oharra benetan gogorra izan zela, bertan mamuz beteriko mezuak, jendea beldurtu nahia eta gezurrak nonahi ikusi genituen. Eta egia esan azkenean, ez dakit, gezurrei erantzuten ibili behar izatea, azkenean nekatu egiten du, oso nekagarria da, eta gainera ulertu nahi ez duenari zerbait esplikatu behar izatea, denbora galtzea ere bada neurri batean, eta niri iruditzen zait gauza batzuk ez dira ulertzen ulertu nahi ez direlako eta esplikatu dira behin baino gehiagotan, langileei KPI igo zaie politikariei bezelaxe.

2007ko KPI aplikatu zitzaizen 2008an 4,2 gehi bat berdin 5,2 eta 2009an 1,9 gehi bat 2,9 izango da.

Egindako prentsa ohar hartan politikarien soldatak % 9 igoko zirela, nahiz eta jakin hori gezurra zela, zeren hori esplikatuta zegoen Pertsonaleko batzordean, igoera horiek nondik datozen eta igoera horiek zer suposatzen zuten, horiek ez zirela soldateko igoerak, baizik eta soldatak edo aurrekontuak egiterako orduan, alde batetik daude Gastos de Organo de Gobierno-edo Gobernu Organuen Gastuak alde batetik hori dago eta beste alde batetik egoten da beste kapitulu bat Incrementos de Convenio edo Konbenioko igoerak, bi kapitulu horietatik ateratzen dira bai langileen eta bai politikarien soldatak, eta egiten duzuten konparaketa da Gastos de Gobierno contra Gastos de Gobierno eta hori ez da horrela egin behar, egin behar dena da bigarrengo kapitulu horretatik zenbat ateratzen den, zeren gertatzen dena da kontsolidatzen dena da hurrengo urtean kontsolidatzen da aurreko urteko igoera, orduan 2008tik 2009ra dagoen aldea da zeren Gastos de Gobierno eta Incrementos de Convenioko kapituluak gehitu egiten dira eta hori ia Gobernu Gastuetara pasatzen da.

Beste alde batetik Elkarkidetza dago, Elkarkidetzan ere organoan Eusko Jaurlaritza, Diputazioa, eta Eudel daude eta igoera nabarmena egon da, beraz, hor guk, gure erabakia da Elkarkidetzan egon edo ez egon eta nik usten dut langileak bezalaxe guk ere badaukagula eskubide osoa, hor egoteko, hor geunden eta hor egongo gara, hor nengoen hemen ez nengoenean ere, baneukan nik nere pentsio fondoa ia langile guztiok bezala eta hor jarraitzen dugu, baita ere kontuan eduki behar da Seguritate Sozialari egiten zaizkion atxikipenak, 2008. urtean arazo tekniko edo akats tekniko bat zela medio, kalkuluak egiterakoan gaizki egin ziren eta % 29,5eko atxikipena egiten zitzaigun gutxi gora behera media bat, eta hori baxu xamarra da eta aurten atxikipena altuagoa egiten zaigunez horrek ere igoera bat egiten du, baino soldatak, soldatak % 1,9 gehi bat igotzen dira beste datu guzti horiek eman ziren, esplikatu ziren, baino hala ere ez dira ulertu nahi izaten eta oso, ez dakit, titular mediatico eta goxoa da, Soldata % 9 igo dute. Bueno horrelako titularrekin bere diskurtsoa elikatu nahi duenak ba.. elikatu dezala, baina bueno guri behintzat ez zaigu egokia iruditzen.

Gastu arrunta gora dihoala, noski gora joango dela gastu arrunta, gure helburuetako bat gastu arrunt horren atzetik dauden langileen lan baldintzak mejoratzea, dignifikatzea baldin bada, ezinezkoa da zerbitzuaren kalitatea mantendu eta zerbitzu horregatik ordaintzen duzun dirua jeistea, hori eskatzen zuen Eudel-ek, optimizatzea eskatzen zuen Eudel-ek, eta nola optimizatzen da herri honetan? Normalean langileen lan baldintzak okertuz, normalean ordu gehiago edo lan gehiago egitera behartuz eta egiten duten lan horregatikan gehiago egiten baldin badute berdin ordaindu edo ahal baldin bada gutxiago ordaindu.

Eta gu behintzat, udaletxe honentzako lan egiten duten langile guztien lan baldintzak, ahal dugun neurrian behintzat hobetzen saiatuko gara eta horrek gastu arrunta, agian, gora ekarriko du, baino baita ere egiten ari garena, saiatzen ari garena egiten da, lehen azpikontrataren bitartez ematen ziren zerbitzu batzuk, modu zuzenean egituratu nahi ditugu, eta eman nahi ditugu eta horretarako lehendabizi urteetan inongo inbertsiorik eduki ez duen alor batean inbertitzen ari gara, ondoren gaur egun kanpoan azpikontratatuta dauden zerbitzu horiek barneratu ahal izateko, zeren zerbitzu horiek barneratu ahal izateko lehendabizi zerbitzu horiek kudeatzeko gaitasuna behar du udaletxe honek, eta udaletxe honetan zeuden langile kopuruarekin ez zegoen gaitasunik kanpoan dauden zerbitzu horiek barrutik emateko, ez zegoen gaitasunik denak kanpoan egon arren ere horrek suposatzen zuen lan karga kudeatzeko ere, beraz nola ekarriko ditugu kanpoan eduki eta ezin baditugu kudeatu. Lehendabizi egin behar duguna da sustraitu, sustraia haunditu, udalaren langile kopurua indartu ondoren adarrak eta enborrak hazten jarrai daitezen.

Beraz, urte hauetan inbertsio potente bat Pertsonalean egiten badugu, horrek ekarriko du ondoren azpikontratitzen ditugun zerbitzuak, gutxinaka-gutxinaka errekuperatzen joango garela eta errekuperatzen goazen hein horretan saiatuko gara, kanpoko enpresa batek dituen mozkinak erabiliaz, udalari errentagarriagoa izatea, langile propioekin ematea lehen subkontratatua edukitzen zena baino, beraz hor hasiko gara aurrezten, behin kapazidadea dugunean kanpoko zerbitzu horiek ekartzen hasteko, kanpoko zerbitzu horien kostea murriztuaz.

Hori da adibidez, Zumaia Lantzenekin egingo duguna, kanpotik zerbitzu bat ematen ziguten eta Zumaia Lantzenen kudeaketa eredu aldatu baldin bada ez da izan Esarberi lana kentzeko, ez, hori da efekto kolateral bat edo modan dagoen hitza, Esarbe izan da orain artean eramane duena, urte askotan eramane du gainera, eta behar ez zen bezala, zeren gure ustetan kontratu hori berritu gabe eta behar bezala eman gabe zegoen aspalditik, baino guk egin duguna da zerbitzua emateko eredu aldatu, hortaz hitzegingo dugu ondoren, baino hori egiteko gaitasuna eduki izan badu udaletxe honek da Pertsonalean inbertitu duelako, eta udaletxe honetan gaur egun ditugun arkitekto, abokatu, administrari, gaur egun hirigintzan

daukagun ekipoak hori egiteko gaitasuna duelako, Zumaia Lantzenen ekipoarekin elkarlanean Zumaia Lantzen kudeatzeko gaitasuna duelako eta hor Xabierrek esan duen bezala, kanpora begira zegoen zerbitzu bat bi miloi eta lauhun mila € kostatzen bazen ba... orain barrura begira jarriko dugun honetan seirehun mila € kostatuko da, epe berdinean, denbora berdinean, beraz, ez dugu usten beste zerbitzuetan horrelako aurrezpen mailarik lortuko ditugunik? Ez dut uste, inondik inora, baina ari da ematen bere lehendabiziko fruituak gestioa egiteko eredu berri hau. Hori da printzipioz orain hemen, emateko dudan erantzuna, ondoren aurrekontuen inguruan hitzegiteko aukera daukagunean, ba... aurrekontu hauen helburuak eta zehaztapen batzuk emango ditut aurrekontu parte hartzearen inguruan, noski ere hitzegingo dut.

**ALKATE-LEHENDAKARIA.:** Bai, nik eman izan diren pare bat gauzei erantzuna,

M. Eugeniak aipatu du Basusta gainean lur publikoaren erosketa aldeko apustua egiten dutela, baina sustraieko galdera ez da Lur publikoaren aldeko lurrak erostearen aldeko apustua egiten dugun edo ez, guk ere egiten dugulako, galdera da Zumaiak ze hazkunde mota nahi dugun izatea, eta hazkunde hori nondik egitea nahi dugun, gure ustez Zumaiak jatorriz behar duen hazkundeak ez dela maldan gora igo behar eta ahal den neurrian Zumaiaren hazkundera toki lauetan behar duela izan, beraz, Basustan gaur egun terrenoak erostea ez deritzogu eta orain dela gutxi baita ere Ezker-Batua Aralarrek egindako nota de prensa batean horrela irakurtzen nuen baita ere, ez deritzogu egokia, ez dugu esaten hemendik ehun urtera egingo ez denik, baino hemendik ehun urtekoak eta hemen daudenak hitzegiten eta diskutatzen, beraiek jakingo dute zer egiten duten. Torreagari dagokionez, ez omen daukagu borondaterik, guk, diru publikoa kudeatzen ditugunik hiru miloi eta zazpiko eurotako diru sarrerak ekartzeko ahaleginik egiten.

Galdera da ahaleginak egiten ditugula, baino ze heldu leku daukagu? Da galdera, hitzarmen urbanistiko bat orain dela urte batzuk sinatua, zuek sinatua, baino ze.. ze.. gauzak jartzen ditu hitzarmen horretan. Hitzarmen horretan jarri balu, jarri balu Munok Ardantzabiden duen bezalaxe frontoia egiteko orduan, abal bat, exekutatu genuke abala, baina hitzarmen horretan ez zen inongo abalik jarri, galdera da zergatik ez zen abalik jarri? Abala jarri balitz dagoeneko frontoia hasiko litzateke egiten, abala jarri balitz dagoeneko exekutatu genuke Torreagako abala, baina non dago helmuga? Eta horrek ez du esan nahi saiakera ez dugunik egiten, baina klaro hitzarmen urbanistikoa egin zenean nork usten zuen krisia etorriko zela eta krisiaren ondorioak pairatuko genituela, hori da galdera.

Eta azkena, Ezker-Batua Aralarrek esan du gauza bat, gu ere beti izan gara gestio publikoaren aldekoak eta ahal den neurrian zuzenaren aldekoak,

horregatik oso gutxi kostatu zaigu akordio batera iristea, beste gauza batzuren artean guk aurkeztu genituen pleguak bide horretatik zihoaztelako baino gaur egun egiten duguna da plegu horiek zehaztu, ondo ikusi genuen zuek zehaztasun gehiagotan sartzea eta bueno, bide horretatik akordioa lortu baldin bagenuen hobe, baino garbi laga nahi dut gu ere zentzu berdinean edo bide berdinean goazela eta pleguak aurkezteko motiboa edo zentzua bere garaian hori izan zen, M. Eugenia beste zezoze esatekorik?

M. EUGENIA ARRIZABALAGA OLAIZOLA AND.: Noski, Iñaki.

Baina egia da ez zaidala batere erraza egiten, iruditzen zait eta denak ere, bueno ez dakit... Iñakik aipatu duen beste gainontzekoak bai. Txikitan esaten ziguten Monjetan ibiltzen ginenean “de donde vienes, manzanas traigo” galdera bat egin eta lekzioa ematen ez genekienean, eta iruditzen zait zuek ere antzeko zerbait egiten duzutela.

Gure osotasunezko emendakinean, inbertsioen gabezia (uy.. ya bost minutuak korritzen ari dira eta ni hemen “dibagatzen”, -parentesi artean-) gastuaren gehikuntza hainbeste kontu aipatu ditugunean, guzti horrek ez dauka inolako zer ikusirik Zumaia Lantzenekin eta are eta gutxiago Esarberekin, baina edozer gauza esaten denean, eta oso ondo ez dakizuenean nondik irten, edo besterik gabe, zer esaten ari garen ulertzen ez duzutenean, ateratzen duzute Zumaia Lantzen eta Esarbe, alegia, herri honetan dagoen “mamu beltza” eta iruditzen zaizue horrekin gauza egina dagoela. Benetan txokantea da.

Lehenagoan Andonik esan duen dialogo hori, Ezker Abertzaleak eta guk mantendu dugun “dialogoa”, bueno, ez dakit zergatik iruditu zitzaizuen hain gogorra guk publikatutakoa, -eskertzen diedala hemen daudenei publikatu izana-, azken finean izan zen: erregistroan sartu genuen eta gaur irakurtzen saiatu naizen dokumentu berdina berdina komunikabideetara bidaltzea. Eta han agertzen ziren arrazoiak ziren, (gure ustetan, arrazoi direnak eta ez gezur) emendakinak sartzeko. Gezurretan saiatzen gara ez ibiltzen, eta akaso zehatza ez den daturen bat erabiltzen baldin badugu izango da oposizioan egonda zaila egiten zaigulako informazioaz jabetzea eta informazio hori eguneratuta edukitzea.

Galdetu dizut % 5aren igoeraren kalkuluarekin ote zegoen egina kapitulu bataren igoera eta gero jeitsi denean, % 1,9 gehi bat, alegia, gure emendakinean ezarritako horren arabera egin duzuten zuzenketak eragin duen jeitsiera hori, eta ez dizut ulertu erantzun didazula, edo ez didazu erantzun?

Bestalde, esan duzunean zuen soldatak ez direla % 9an igo, eta esplikatu dizkidazun gauzak, nik neuk, ez ditut ulertu, -atxikimenduak eta kontsolidazioak eta incrementos de convenio más gastos de gobierno más

consolidados- joan den urtekoak kontsolidatu baldin badira, aurtengoak datorren urtean kontsolidatuko dira eta hori bata bestearen atzean joango den konturen bat izango da, aizu, guk bakar-bakarrik zuek emandako dokumentuetan agertzen zen: 110 programa, Goi zuzendaritza eta Gobernu Organuak, Pertsonal Gastuak aurrengo kapitulua. Horko kopuru hori hartu genuen eta alderatu genuen; eta gainera agertzen zitzaigun bi koadro desberdinetan, alderaketa bata zuek zeurok egin eta guri pasatakoa, eta bigarrena aurrekontuetan publikatzen den hau. Kontrastea egin genuen; bietan berdina ematen zigun. Oker geundela? Hori zen papel haietan jartzen zuena eta inolako gezurrik esateko asmorik gabe.

Iñakiri erantzunaz, Basusta eta herriaren hazkundera. Egia esan, neuk ere presa gehiegirik ez dut ikusten Basustan maldan gora hasteko, baina malda gora esaten denean ez da goiko gailurreraino baizik eta beheko partea. Ez dut ikusten presa haundiegirik zoritxarrez oraindik ere Puntanuetako bigarrenengo fasea, bai, hor dabilta makinak akopioak alde batera kentzen baina ez dugu inon sumatzen benetako mugimenduak ematen ari zaretenik, hor aurreikusitako 250 gehi Eusko Jaurlaritzak egin omen behar zituen beste ez dakit zenbat, zuen esanetan, edo zuek argitu zenuten bezala martxan baleude, desde luego horiek denak egin bitartean presarik ez dago eta geuk defendatu izan dugu beti maldan gora egitea baino askoz egokiagoa dela Zumaian hego alderuntz haztea, zein da problema? Ba.. beti ikusi duguna Narrondoko erreka, Galvanizados eta Narrondoko egitura, Costaseko legea eta Costaseko deslindeak desblokeatzea. Txostenak prest zeuden, Luziano Pagaegik esan da ba...agintaldi honen hasierarako espero dut Zumaiako hazkunde modelo horrekin koherente izan da ba... honezkero gestio ikaragarriak egingo zenituztela Madrilen eta hango zuzendaritza eta dena delakoekin hori desblokeatzeko eta nolabait hazkunde hori hemendik bost, hamar, hamabost edo hogeitara eman beharko den hazkunde hori gauzatu ahal izateko.

“Torreagarekin ez dagoela heldu lekurik eta borondatea badaukazutela”. Borondatea bai, kapazidadea...¿? Heldu lekuak ez daudela eta Torreagako hitzarmenean agertuko balira, (zer ziren...) abalak, Ardantzabiden Munok dauzkan bezala, ulertzen dut hori heldu lekutzat joko zenuela eta honezkero kobratuta izango zenuela, baina nik, Munok abalarekin bermatua behar duen frontoia eta dagoeneko teiltuaren faltan egon beharko litzatekeena ez dut inon ikusten, beraz, egiten dizkidazuen aipamenak pixkat “perplejizatuta” usten naute.

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Emiliano, Ezerrez

SR. EMILIANO GONZALEZ CABAÑAS.: Bueno, pues voy a entrar entonces a hablar ya del Presupuesto, porque...

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Pero no te obligo a hablar, si no quieres hablar, Ah!

SR. EMILIANO GONZALEZ CABAÑAS.: No, te quiero decir, que yo creo que si estamos en el debate de la enmienda a la totalidad y yo no hago ni turnos ni a favor ni en contra,

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Pues ya está, pero si la gente quiere hablar, había dos turnos, Xabier

XABIER OLAIZOLA ANTIA JNA.: Guri esan digu ez dakigula zertaz hitzegiten duten, bera bezain argia ez gara izango, noski, baina ni ere monjetan ibilitakoa naiz eta igual zeoze badakit, zeren gastu arruntaz hitzegiten duzunean, gastu arruntaz hitzegiten duzunean igotzea gaizki dagoela langileen igoera igo delako, hori gaizki dago, baino sarrera arruntak enpresariei zergak jeitsitzea hori ondo dago, beraz jakin badakigu zertaz gelditzen zareten gastu arrunta eta ez arrunta batetaz ze defenditzen duzue? hau da gutxien daukanari kendu gehien daukanari emateko, beraz, zerbait jakin badakigu bai gastu eta bai sarrera arruntetan eta baita ere zerbait badakigu ze ibili duzuen Zumaia Lantzen eta Esarberekin, bai guk, eta zuek, noski, askoz hobeto dudarik ez,

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Andoni,

ANDONI ETXANIZ OSA JNA.: Lehendabiziko kapituluaren jeitsieraren arrazoia, bueno lehendabiziko zenbakiak % 23,1en igoera ekartzen zuen, zenbaki horiek behin eta berriro erreparasatu ondoren jakingo duzuten bezala bertako teknikaria ere arrazoi desberdinengatikan edo bueno arrazoia dena delakoa, bajan dago eta teknikari berri batekin landu behar izan ditugu hauek eta hor akats batzuk eta duplizidade batzuk detektatu genituen aurkeztu ziren zenbaki horietan, eta hori ba.. meioratu egin da. Beste batzuk berriz pixka bat limatu edo genituen espektatiba pixka bat egonkortu egin behar izan ditugu, zeren, ba... ikusten genuen lehendabiziko kapitulu hori inbertitu beharreko kapitulu bat izan da inbertsio horri ere heldu egin behar geniola eta ezin genuela maila batetik

gorako inbertsiorik planteatu, hor ere saiatu gara nahiz eta oraindik eta inbertsio potenteagoak egiteko beharra ikusi, inbertsio horiek ba.. kontenporizatzen.

Egia da, KPIaren prebisioak ere izan duela bere eragina, zeren inork gutxik aurreikusiko zuen azaroan aurtengo KPIa % 2aren azpitik ibiliko zela, hori izan da, ez dakit, nola lortu den baino horretan ibiltzen diren teknikari eta politikariek habilitate latza izan dute eta lortu da ondo, bai, KPIa % 1,9tik jeistea, nola kalkulatu duten jakin nahiko nuke, zeren euroa sartu zenean ere ez zen askorik igo eta orain ez dakit bazirudien jeistea zela helburua eta ondo jeistea lortu da.

Gure aurrengo aurreikuspenek KPIa % 3,5ekoa estimatzen genuen gehi bat 4,5 eta hori izan zen lehendabizi sartu zen kopurua, baino gero ikusirik ze KPI publikatzen joan ziren, hori berritzen joan ginen, ikusirik behera eta behera eta oraindik behera dihoan indize bat dela, beraz, alde batetik bai KPI-ak eduki du bere eragina, baino ez 5,2 batetik 1,9 ra jeitsi dugulako zuek hala iradokita, baizik eta zer nolako datuak publikatzen ziren joan garelako eta datu horiei kasu eginaz, hori jarri diogulako, eta beste alde batetik zeuden duplizidade batzuk kendu ditugu eta baita ere beste enkaje eta beste, ez dakit, ajuste batzuk egin ditugulako lehendabiziko proposamen hartatik, lanaldiren bat erdira jeitsi eta beste ajusteren bat eta horregatik izan da jeitsiera hori, % 16,7rartekoa.

Gero abalen inguruan hitzegin duzute eta bai egia da Ardantzabideko hitzarmenean abalak aurreikusten direla eta abal horiek exekutatu daitezke, exekutatu daitezkeenean, ez lehenago eta ez beranduago, eta Ardantzabideko abalak exekutatzeke momentua oraindik ez da iritsi, horregatik ez dira exekutatu, horregatik ez dago frontoia txapelaren falta, baino frontoiaren exekuzioa bermatzen duten abalak, okupazioko, lehen okupazioko lizentziarekin batera datoz, lehen okupazioko lizentzia eman baino lehenago abal horiek mahai gainean jarri behar dira eta hori da falta dena, oraindik hemen inongo lizentziarik ez da eman, inongo lizentziarik ez da eskatu, beraz, inongo abalik exekutatzeke erramintarik ez daukagu, momentu hori iristen denean, noski, abal horiek exekutatzeke bidea zabalduko da.

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Zuk minutu bat esan duzu, Bale....

Ba besterik gabe bozkatzera pasako ginatke, ia Andonik esan du abalaren asuntoa, perplejo ni geratu naiz, esan duzunean abalen bat bazegoela nonbaiten, eta pentsatu dut, ez dakit non dagoen, baina bueno...

JOSEBA JOSU AZPIAZU AZKARRAGA JNA.: Mikrofonorik gabe hitzegiten du.

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Bozkatzera pasako gara eta gero nola berriz ere aurrekontuei buruz Emilianok ere hitzegin nahi duen etbr. berriz ere aukera edukiko dugu aurrekontuari buruz hitzegiteko, zeren azken finean berdinari buruz hitzegin behar dugu, baina bueno, Besterik gabe orduan pasatzen gara PNV-K osotasunezko emendakina aurkeztutako, osotasunezko emendakina botatzea, M. Eugenia

M. EUGENIA ARRIZABALAGA OLAIZOLA AND.: Aldeko botua,

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Aldeko botua, Emiliano?

SR. EMILIANO GONZALEZ CABAÑAS.: A favor, también

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Emilianok aldeko botua, Ezker-Batua Aralarrek?

XABIER OLAIZOLA ANTIA JNA.: Aurkako botua

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Ezker-Batua Aralarrek aurkako botua, Andoni?

ANDONI ETXANIZ OSA.: Aurkako botua,

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Aurkako botua, Guk aurkako botua

ERABAKI ZATIA

PARTE RESOLUTIVA

Aldeko botuak: 6 botu (4 PNV ;2 PSE-PSOE )

Aurkako botuak: 7 (2 EB-Berdeak/Aralar; 1 Andoni Etxaniz Osa, 1 Nerea Epelde Azkue, 1 Joseba Josu Azpiazu Azkarraga; 2 EA)

Abstentzioak: 0

Votos a favor: 6 (4 PNV ;2 PSE-PSOE )

Votos en contra: 7 (2 EB-Berdeak/Aralar;1 Andoni Etxaniz Osa, 1 Nerea Epelde Azkue, 1 Joseba Josu Azpiazu Azkarraga; 2 EA)

Abstenciones: 0

LEHENENGOA: PNV-EAJ-k aurkeztutako osotasunezko emendakina Ez Onartzea.

PRIMERO: Desestimar la enmienda en su totalidad presentada por el partido EAJ-PNV.

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Besterik gabe, orain bai...

SR. EMILIANO GONZALEZ CABAÑAS.:Digo porque una vez hecho el voto siempre interesa y creo que es uno de los reglamentos también, he dicho antes que...

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Bueno, Emiliano, simplemente por aclarar se suele entender, o yo por lo menos suelo entender que con la apertura de las intervenciones cuando uno empieza a intervenir y tiene derecho a los cinco minutos que he dicho yo antes, pero que bueno al final han sido muchos más, pues es ahí donde se explica el sentido del voto posterior, pero bueno si tu interpretas que es al revés, yo digo que generalmente en este pleno hemos solido hacer así en los plenos anteriores, en la anterior legislatura y en ésta, bueno

SR. EMILIANO GONZALEZ CABAÑAS.: Yo simplemente para aclarar, no hay.. si se quiere se interviene en el voto a favor o en contra sobre una enmienda a la totalidad parcial de adicción o de lo que sea de los presupuestos por parte de otro grupo, si no se cree conveniente porque no dá lugar no se interviene, pero luego la explicación de voto es ajeno al turno de intervención de a favor o en contra de esa enmienda y se rige en todas las instituciones. Que no se lleve a la practica no quiere decir que no sea así, a ver si me entiendes....

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Que será así Emiliano, que no lo voy a discutir, simplemente te digo que por agilidad se suele hacer así, no sé que diferencia hay entre decirlo antes o decirlo después, pero vamos que probablemente será así y que la ley pondrá así, no te digo que no, no sé, la Secretaria dirá, pero bueno, era por agilidad por nada más.

SR. EMILIANO GONZALEZ CABAÑAS.: Te lo explico muy facil, no estoy en contra del voto de enmienda, ya te lo explico que va en relación con la postura del voto ni tampoco tengo por qué defender una enmienda de otro grupo que vamos cualquiera de los que están aquí considero que tienen suficiente capacidad para hacerlo, así de sencillo.

SR. EMILIANO GONZALEZ CABAÑAS.: La alegación fue presentada en su día, os dije claramente que la basaba en temas jurídicos y no en políticos y sigo pensando que se me ha contestado negativamente porque lógicamente así ha sido, sigo sin entender el por qué se hace una interpretación a mi forma de ver que no sea jurista, pero por la información que tengo errónea, y no seré yo quien tenga definitivamente que tomar la determinación que tenga que tomar si da lugar a tomar alguna en su momento, porque no me corresponde, en cuanto a que no existía el Reglamento Municipal, pues bueno, bien, se atiende a la Ley si eso no es ningún problema, el ROM dichoso pero lo que sí está claro es que el auto jurídicamente lo que trata de alguna manera de eliminar es el grupo, entonces no tiene mucho sentido jurídicamente por mucho que en ese escrito lo hayan dicho así que creando un grupo mixto se atiende el auto, no tiene mucho sentido ni tiene mucha cosa, porque el grupo mixto aunque no esté reconocido dentro del Reglamento Municipal donde está reconocido tiene los mismos requisitos se llame Pedro o se llame Juan el grupo, es exactamente lo mismo, si lo que pretende el auto es eso precisamente evitar esos digamos, esos pros esos contra que tiene esos derechos y esas obligaciones que tiene el grupo creando un grupo mixto, lo único que se hace es llamarle de otra manera pero seguir los mismos, entonces sigo pensando que el informe que se ha mandado contiene que es así o que debe de ser así, pues vuelvo a repetir no soy yo quien tiene que decir que sí o que no, creo que está totalmente equivocado y que por lo tanto lo que tenga que dar lugar en su día si es que tiene que dar lugar y yo no tengo por qué esperar que dé lugar a nada ni tengo la más mínima intención, yo sí tengo claro que creo que está equivocado, hay una de las cosas aunque si entro en el tema político que sí que me gusta de la contestación, porque resulta que se critica por una parte y luego se atiende a que dentro de lo que es la Constitución Española, ese monstruo que anda por ahí, es la base de todo el desarrollo que se hace y la defensa que se hace precisamente para mantener el grupo mixto y demás, pues por una vez por lo menos se ha reconocido algo que si sirve para algo también ahí está, porque yo no entendía como es posible que la mitad o más de la mitad de la contestación esté basada en los derechos que otorga una Constitución que lo único que se pretende es precisamente que parece que precisa y se atiende a ella a recoger esos derechos, me alegro, eh! por otra parte porque entonces se vé claramente que es una Constitución para todos y no contra nadie, pero bueno, ahí está el tema entonces no tengo nada más que decir sobre este tema, si algún día eso tiene algún tipo de repercusión ahí está la alegación y está la contestación y nada más,

LIOBA MAIZA RECONDO, SECRETARIA.: Bueno, Primero el ROM es supletorio a las leyes y a los reglamentos orgánicos que aprueban los ayuntamientos, eso el primer asunto. Mi informe ya lo habeis leído, simplemente que la ley de bases que como situaciones dice para ser concejal no adscrito concejales que no se integren en el grupo político o concejales que abandonen su grupo político, por lo que no habla de los grupos que hayan sido suspendidos o disueltos, digamos que es la base en la que me baso en mi informe y las sentencias que he podido mirar y encontrar. Es la base legal que he encontrado y la que tengo que decir.

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Oso ondo

LIOBA: Y que el grupo mixto no se crea solo para los que hayan sido suspendidos por sentencia judicial, y parece que esta ordenanza solo se crea para el grupo ANV, y si se emplea para eso, pero no solo tiene porque se para eso, y es tambien lo que quería decir.

SR. EMILIANO GONZALEZ CABAÑAS.: Si no se crea para eso pero que sí que sirve para los demás, el punto dos estaría de más porque estais diciendo o estamos diciendo como ayuntamiento en lo que se ha aprobado, que todos aquellos que se disgreven de su grupo por lo que sea, no pasarían a adscritos pasarían a formar parte del grupo mixto automáticamente, porque tienen la misma consideración si yo me voy que si lo hago lo otro, exactamente igual pero que vamos que no voy a entrar en.....

LIOBA MAIZA RECONDO, SECRETARIA.: La Ley de Bases contempla dos situaciones posibles para ser concejal no adscrito, concejales que no se integren en el grupo político que constituya la formación electoral por la que fueron elegidos y concejales que abandonen su grupo político de procedencia. Yo no puedo decir que los que hayan sido disueltos por sentencia judicial queden directamente en condición de no adscritos. Si sale una nueva ley, pues lo dirá, pero en este momento no.

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Alderdi sozialistak aurkeztutako emendakinari bateren batek komentario bat egin nahi baldin badio, M. Eugenia,

M. EUGENIA ARRIZABALAGA OLAIZOLA.: Emendakinari?

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Bai, alegazioari

M. EUGENIA ARRIZABALAGA OLAIZOLA.: Ez gaudela ados, besterik gabe

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Ez zaudetela ados, zuek? Komentariorik, Andoni,

ANDONI ETXANIZ OSA JNA.: Emilianok komentatu du batzurentzako Konstituzioa ez dakit, monstro bat edo dela, zoritxarrez, Konstituzioa interpretatzen dutenek egiten dute Konstituzioa monstrosoa izatea, zeren Konstituzioa hartzen baldin badugu dokumentu bezala ez dago horren gaizki, pena, tamalgarria da Konstituzio horren erabilpena nola egiten den eta Konstituzio hori bera nola deformatu den legislazio berriekin eta egin diren lege ADOK horiekin.

Konstituzioak aurreikusten dituen eskubide guztiak beteko balira, beteko balira Estatu honetan ez geundeke gauden egoeran, arazoa da Konstituzioak aurreikusten dituen eskubide guzti horiek ez direla errespetatzen, eta hori ez dut nik esan hori ondoren mahai honetara ekarriko dudan beste pertsona batek esaten du eta orain dela gutxi, gainera esan du, beraz, Konstituzioari aitortu geniezaioke baduela bere horretan balore bat dokumentu horrek, baino arazoa da Konstituzio hori aplikatu behar dutenentzat –papel mojado- dela erderaz esaten den bezala, eta Konstituzio hori balorea jarriko balitz, segurazki beste egoera batean egongo ginateke, hemen Jurisprudenzia egiten duten sententzi desberdinak jarri dira mahai ganean eta sententzi horiek, eta ez epaileak gure lagunak direlako, edo gurekin konibenteak direlako beste batzuek bezala, esaten dutena da politikan aritzeko guztiok eskubide berdinak izateko, mekanismoak jarri behar direla, guztiok izan garela herriaren gainetik hautatuak, beraz, guztiok eduki behar ditugula erreminta baldintzak eskubide berdinak politikaritzan aritzeko, hori esaten du ba... kantabriako Tribunal Superior de... edo ez dakit nik nola deitzen den, ez dut nik esaten, eta azken finean Espainiako Epaitegietako Jurisprudenzia erabili dugu hemengo alegazio hau egiterako orduan, guri zer gehiago nahiko genuke horrelako enkaje legalak egin beharrean ibili izan beharrean, ba.. Estatu honetan eskubide guztiak Estatuak errespetatzen ibiliko balitz, baino hori horrela ez denez, zoritxarrez, batzuk Estatuak ba...jasatzen gaitu pentsatzen dugunagatik eta pentsatzen duguna herriratzen jarraitu ahal izateko eta pentsatzen dugunaren ildo politikoa

erakundeetan isla eduki ahal izan dezan, ba... zoritxarrez horrelako enkaje juridiko eta horrelako enkaje legalak egiten saiatu behar gara, que pena eh!

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Bueno, ez, Emilianok erantzun nahi du, ez?

SR. EMILIANO GONZALEZ CABAÑAS.: Me dan ganas, pero es que la verdad, no quiero, no quiero, solamente... no quiero armar un follón ni entrar en una discusión tonta, porque lo que has dicho Andoni, todos hemos sido elegidos para hacer política, por supuesto, hagamos política pero no me preguntes como la van a hacer la cantidad de compañeros de mi partido de otros de cualquiera concejales que también fueron elegidos para hacer política, pues no quiero entrar en ese debate, porque creo que no es el momento ni mucho menos, pero si fueras la situación pues todo el mundo entra, pero donde estan los derechos de esos para hacer política, tú la estas haciendo, podrás decir que con mejor o peor suerte o mejor o peor, digamos, poder de decisión, no sé como lo querrás llamar pero la estás haciendo los demás no.

ANDONI ETXANIZ OSA JNA.: Barkatu, M. Eugeniak esaten duen bezala –de donde vienes, manzanas traigo- ez dakit zer ikusirik daukan orain eman didan erantzunak nik hemen hitzegin dudanarekin, ez duzu polemiketan sartu nahi, baino zuk ateratzen dituzu gai polemikoak, momentu horretan horri buruz ez gara ari, ez gara ari zure ideien inguruan, ari gara alderdi zehatz baten eskubideen inguruan, horren inguruan hitzegiteko aukera, zoritxarrez, zoritxarrez, hitzegin behar da, noski hitzegin behar dela baino horren inguruan hitzegiteko aukera edukiko dugu, eta hitzegino dugu baino orain beste gai bati buruz ari gara eta hemen debateak ez baldin badira ondo akotatzen eta ez baldin baditugu gauzak ondo bereizten –sekula santan ez dugu irtenbiderik eta sekula santan ez dugu ezerre argituko- dena nahastu, dena kakastu eta beti biszeretatik hitzegiten jarraituko dugu eta horrekin politikariek ez dute inongo ekarpenik egiten egin behar duguna da burua erabili eta burua erabilia guztion eskubideak errespetatu, guztionak, guztiok zuk eta nik eta alderdi sozialista eta ezker abertzaleak eta nere ustez hori da bidea eta ez betiko mamu eta betiko diskurtso horrekin guztia justifikatu, horrekin ezin da guztia justifikatu, hori ezer justifikatzen ez duela esaten duzute baino horrekin guztia justifikatzen duzute eta hori ere ezin da.

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Besterik gabe, M. Eugenia

M. EUGENIA ARRIZABALAGA OLAIZOLA AND.: Barkatu baina lehenago galdetu didazu nere iritzia PSOE-k sartutako helegitearen, helegiteari buruz. Esan dut ez gaudela ados, baina zerbait esan nahiko nuke tratatzen den gaiari buruz.

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Ez, bakarrik adierazteko lehenbizi oker ez baldin banago, Lioba, bozkatu behar dugu alegazioa eta ondoren testu osoa, ezta? Oker ez baldin banago, Bai, ez horregatik galdetzen nuen, baina bueno

M. EUGENIA ARRIZABALAGA OLAIZOLA AND.: Baina alegazioa zer dela eta bozkatu behar dugu, informe juridikoa baldin badago eta zuek .....

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Nik ulertuta neukan, baietz, baina bueno

LIOBA MAIZA RECONDO, IDAZKARIA.: Ez da emendakin bat, berez, o sea que...

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Bale, bale, ez da botatzen, bere osotasunean botatzen da, Bale, nik horrela ulertu dut, Besterik gabe, M. Eugenia

M. EUGENIA ARRIZABALAGA OLAIZOLA AND.: Bueno, besterik gabe, esan nahi nuen, Plenoan tratatu zenean eta behin behineko onarpena eman zitzaionean Udal Ordenantza honi, ba alde geundela adierazi genuen eta gaur ere berdina adierazten dugu, Eusko Alderdi Jeltzalekook alderdien legearen aurka egon garelako betidanik eta ez gaudelako inolaz ere ados gizarte honetako zenbaitzuren ordezkaritza politikoa jokuz kanpo lagatzearekin. Eta hori saiestu dezakeen neurrian ahalegina egingo dugu; eta gainera pleno hartan aipatzen genuen pixkat: gustatu ez zitzaiguna egindako planteamentuari buruz zen talde mistoa “erreserba” sentitzen zela bere osotasunean ilegalizatuak izan zirenentzat, eta hori aldatu egin da, Liobak komentatu duen bezala. Eta Andoni Etxanizek “Konstituzioa ez dela hain txarra” esan duenez..., nik buruz ez dakizkit bertako artikulua, baina burura etorri zaizkit bapatean batzuk, horrelako gauza batzuk esaten dituztenak: –“El ejército es el garante de la unidad de España y la

soberanía reside en el pueblo español y que Juan Carlos de Borbon es el soberano y el Jefe del Estado Español”- etbr... luze bat. Badaezbada ere.

ANDONI ETXANIZ OSA JNA.: Baina bueno altura honetan, ni konstituzionalistatzat ez nauzu hartuko, ez?

Esan nahi dut, dokumentua bere horretan ba.. bueno beste karta magna batzuk beste herri batzuetan dauden corta-pega, guk esleipenekin egiten dugun bezala, polita egin zen bere garaian baina bertan aurreikusten diren edo bermatzen diren edo bermatu beharko liratezkeen eskubide guztiak bermatuko balira ez litzatekeela horren... legea kunplitzearekin herri honetan bakarrik ia soluzioaren urrats haundi batzuk emanak egongo ziren, baina zoritxarrez, ez da ematen

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Bueno, bozkatzera pasako gara, M. Eugenia

M. EUGENIA ARRIZABALAGA OLAIZOLA AND.: Aldeko botua,

ALKATE-LEHENDARIA.: Aldeko botua, Emiliano-k?

SR. EMILIANO GONZALEZ CABAÑAS.: Que como ha dicho M. Eugenia nosotros estamos de acuerdo, que la alegación no da lugar a votar. Ha sido una alegación

ALKATE-LEHENDARIA.: Ez, ez orain ari gara bozkatzen no la alegación, sino la aprobación definitiva,

SR. EMILIANO GONZALEZ CABAÑAS.: Ah, vale, vale, logicamente con el informe que hemos recibido nosotros estamos en contra,

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Bien, Ezker-Batua Aralar, Xabier o Cristina?

XAVIER OLAIZOLA ANTIA JNA.: Aldeko botua,

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Aldeko botua, Andoni-k?

ANDONI ETXANIZ OSA JNA.: Alde,

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Aldeko botua eta EA-k ere aldeko botua,

#### ERABAKI ZATIA

Aldeko botuak: 11 botu (4 PNV-EAJ; 2 EB-Berdeak/Aralar; 1 Andoni Etxaniz Osa, 1 Nerea Epelde Azkue, 1 Joseba Josu Azpiazu Azkarraga; 2 EA)

Aurkako botuak: 2 (PSOE)  
Abstentzioak: 0

LEHENENGOA: UDAL  
TALDEI BURUZKO  
ORDENANTZA GEHIENGO  
ABSOLUTUAREKIN BEHIN  
BETIKO IZAERAZ  
ONARTZEA ,

BIGARRENGOA: Erabaki hau legeak agindutako eran Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean oso osorik argitaratzea jendeak horren berri izan dezan.

#### PARTE RESOLUTIVA

Votos a favor: 11 ( 4 PNV-EAJ; 2 EB-Berdeak/Aralar; 1 Andoni Etxaniz Osa, 1 Nerea Epelde Azkue, 1 Joseba Josu Azpiazu Azkarraga; 2 EA)

Votos en contra: 2 (PSOE)  
Abstenciones: 0

PRIMERO: APROBAR  
DEFINITIVAMENTE POR  
MAYORIA ABSOLUTA LA  
ORDENANZA REGULADORA  
DE LOS GRUPOS  
MUNICIPALES.

SEGUNDO: Publicar íntegramente y en legal forma el presente acuerdo en el Boletín Oficial de Gipuzkoa para general conocimiento.

Besterik gabe MOZIOEKIN pasako gara eta orain bai lehenago Manuk esan duen bezala mozioena nola diferentea den ez? Eta orain gainera zortzirak eta hogeita minutu denok nekatuta egongo gara, bi turno batek bost minutu eta oraingo honetan zorrotzo jarrita eta besteak bi, nik gauza bat esan nahiko nuke eta baita agilizatze aldera, nik usten dut mozio denak irakurrita dauzkagula, bozeraemaileen batzordean dagoeneko aitatuta dauzkagula salbu sartu zirenak azkenengo momentuan, baino bueno denak

irakurrita daude eta eztabaidatuta ere bai, nahiz eta pentsatzen dut hemen gehiago eztabaidatu dugula, baina bueno eta besterik gabe irakurri baino hobe dela bakoitzak aurkeztu duenak bere esposizioa egin dezala zer nahi duen eta bueno eta gero...

Aurrenengoa:

**Andoni Etxaniz zinegotziak aurkeztutako mozioa: MAKROESPETXEEN KONTRAKO PLATAFORMAREN MOZIOA.,**  
Andoni

ANDONI ETXANIZ OSA JNA.: Bueno lehendabizi aurrekari labur batzuk jarri nahiko nituzke mahai gainean, 2006. urtean Makroespexeen aurka plataforma sortzen da. Makroespexeen aurka plataformak mozioa aurkeztea erabakitzen du, eta gu ezker abertzaleak konpromisoa helduko diogu horregatik gaur hona, ekartzen dugun mozioa plataforma honek adostutakoa da.

Joan den otsailaren hamaiketan, bozeraemaileen batzordean EAJ-PNV alderdiak mozio hau transakzionatzea proposatu zigun, mozio honi puntu batzuk gehituaz. Makroespexeen aurkako plataforman eragile askok hartzen dute parte: Loiola etxea, Arrats Elkarte, Zubietako herri batzarra, Salaketa Araba, LAB, CNT, Ezker Abertzalea, Aralar eta Ezker Batua, 2008ko urrian prentsaurreko batean aurkeztu zen mozio hau, eragile artean adostutakoa zelarik, beraz, orain aldaketak egitea ez da posible, hau ez baida gure mozioa, makroespexeen aurkako plataformarena baita, bertan adostutako mozioa baita.

2006ko otsailaren 23an, Eusko Legebiltzarrak Euskal Herrian Donostiako Zubietan aurreikusita bezalako makroespexeen aurkako eraikuntzari uko egin dioezaiola eskatu zion Barne Ministerioari, ebazpen horrek PNV, EA, Ezker Batua, EHAK eta Aralarren babesak eduki zuen. Ingurugiro ikuspuntutik ez dira beharrezko informeak egin inpaktu ekologikoa eta jendearengan edukiko duen azterketak ez dira egin, makrospexea eraiki nahi den lekua gainera babes ekologiko haundia du, aurrekari hauek dira mahai gainean jarri nahiko nituenak eta orain mozioa irakurriko dut,

Zubietan makrospexea bat eraikitzeko egitasmoaren aurrean, Gipuzkoako Makrospexeen Kontrako Plataformak udaletxe honi eskatzen dio honako akordioak har ditzala Zubietan makrospexea eraikitzeko egitasmoaren aurka:

Ante el proyecto de construcción de una macrocárcel en Zubieta, la Plataforma Contra La Macrocarcel de Gipuzkoa solicita a este ayuntamiento, que adopte los siguientes acuerdos en contra del actual proyecto de construcción de una cárcel en Zubieta:

1.- Udaletxe honek espetxe eta zigor egikaritza politika aurrerakoiagoa eta gizatiarragoa beharrezkoa dela uste du, birgizarteratzearen helburuari lehenetsua emango dion politika beharrezkoa da.

2.- Udaletxe honek askatasun gabetzea bilatzen ez duten bestelako neurrietan oinarrituko den eredu proposatzen du: zigor betetze alternatiboak (zigorraren esekipen baldintzatua eta zigorra ordezkatzeko duten programak), gune tutelatuak zigortutako emakumeentzat eta beren kargu haurrak dituzten amentzat, gaixotasun kroniko nahiz buruko osasun arazoak dituzten presoentzat zerbitzu berezituak, espetxez kanpoko osasun guneak, komunitatearen aldeko lanak, zigor eta espetxe bitartekaritza, lanerako eta heziketarako laguntza programak, espetxetik ateratzeko etxebizitza laguntzarako programak, birgizarteratzeko zentroak... Hauek eta beste alternatiba batzuk, gizatiarragoak, eraginkorragoak eta merkeagoak ere badira.

1.- Este ayuntamiento cree que es necesaria una política de ejecución penal y penitenciaria más progresista y humana que la actual, una política que dé prioridad al objetivo de la reinserción.

2.- Este ayuntamiento propone un modelo que promueva otras medidas no privativas de libertad: cumplimientos alternativos para toxicómanos (suspensión condicional de la condena y programas de sustitución de la pena), centros tutelados para mujeres penadas y para madres con hij@s a su cargo, servicios especializados para personas presas con problemas de salud mental y enfermedades crónicas, unidades hospitalarias extra-penitenciarias, trabajos al servicio de la comunidad, mediación penal y penitenciaria, programas de apoyo formativo y laboral, programas de apoyo residencial para la salida de prisión, creación de centros de inserción social... Estas y otras alternativas son más humanas, más eficaces e incluso más baratas.

3.- Udaletxe honek adierazi nahi du ezarri nahi duten makroespetze ereduak ez duela lehen zehaztutako helburuetako bakar bat ere betetzen, eta are gehiago, 2006ko otsailaren 23an Eusko Legebiltzarrean “Makroespetxeen desagertu buruz” aurkeztutako eta gehiengoz onartutako ez legezko proposamenaren kontrakoa dela.

4.- Horregatik guztiarengatik, udaletxe honek egungo Zubietako Espetze Ereduan (edo Makroespetxearen) eraikuntza egitasmoaren kontrako jarrera azaldu nahi du, eta zigor egikaritze eredu berri baten aldekoa, eta jarrera hau Espetze Erakundearen Zuzendaritza Orokorrari helaraziko dio.

3.- Este ayuntamiento manifiesta que el modelo de macrocárceles que se pretende implantar no cumple ninguno de los objetivos antes descritos, e incluso es opuesto a la Proposición no de Ley “relativa a la desaparición de las macrocárceles” presentada el 23 de Febrero del 2006, y aceptada por mayoría en el Parlamento Vasco.

4.- Por todo ello, este Ayuntamiento se posiciona contra el actual proyecto de construcción de una Cárcel Tipo (ó Macro cárcel) en Zubietta, y a favor de un nuevo modelo de ejecución penal, y trasladará este posicionamiento a la Dirección General de Instituciones Penitenciarias.

Hau da gaur hona hemen onartzeko ekartzen dugun mozioa,

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Juxtu bost minutu, ondo, M. Eugenia,

M. EUGENIA ARRIZABALAGA OLAIZOLA AND.: Bai, guk bozeraemaileen batzordean adierazi genuen aldeko botua emango genuela, baita ere Andonik esan duen bezala gure nahia izango litzatekeela transakzionatzea eta txertatzea mozio honetan, Legebiltzarrean aurkeztu zuenean Aralarrek, saiatu ginen bezalaxe, Estatutuan oraindik ere bete gabe dituzten eta materia honi dagozkion transferentziak pasatzeko eskaera.

Andonik gaur esan duen bezala orduan ere esan zigun ez zuela apropos ikusten inolako transakziorik egitea, bere horretan utzi nahi zuelako testua, eta orduan ba... ze egingo diogu ezin ba transakzionatu baina hala ere aldeko botua emango diogu,

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Emiliano

SR. EMILIANO GONZALEZ CABAÑAS.: La palabra Macro cárcel desde luego en ningún momento consta en la solicitud que se hizo para Zubieta ni para ningún otro sitio que sepamos de los que están pendientes de ejecutar o nó como centros penitenciarios, es una palabra que se acopló aquí o se adoptó aquí con una intención concreta y entonces con esa intención se trata de sacar unas conclusiones que no son reales en base a lo que se está diciendo a la misma vez. La necesidad de sustituir los actuales centros penitenciarios por otros, no significa ni macro cárcel ni no macro cárcel, que tengan más capacidad de números de internos o menos capacidad de números de internos no le crean una macro cárcel porque dá una sensación de que eso estamos hablando de algo vamos indescriptible, y eso no es así, y eso no es así, lo cierto es que Martutene no se puede mantener en las condiciones que está, ni la de Vitoria que no me acuerdo ahora como se llama, tampoco, se puede mantener y hay que dar una alternativa si queremos precisamente que los internos tengan un mínimo de nivel de calidad en su retención ahí en esos centros, por lo tanto, no se trata de otra cosa y lo que aquí exponeis es algo que está recogido en la propia Ley Penitenciaria y ni quita ni pone, ni cárcel mayor ó menor, eso no tiene mucho sentido, lo que pasa que se metió la palabra macro cárcel para coger y dar un poco de miedo al asunto, pero en realidad eso no responde para nada a la realidad, por lo tanto nosotros no podemos votar a favor de esto sino todo lo contrario porque entendemos que lo que recoge está recogido ya en la Ley Penitenciaria por una parte y por otro lado no hace más que sustituir aquellos centros penitenciarios que no reúnen condiciones mínimas para seguir teniendo gente dentro, ni para los internos, ni para los funcionarios, ni para nadie que lleva allí cualquier tipo de trabajo en ayuda o lo que sea de ellos mismos, ésa es la única idea de sustitución de unas por otras igual que cuando nosotros tenemos un piso viejo y tratamos de tener un piso nuevo, no significa que vaya a ser ni mucho menos a peor pero siempre buscamos lo mejor,

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Ezker-Batua Aralar,

XABIER OLAIZOLA ANTIA JNA.: Aurrena esan, bai Ezker-Batua eta bai Aralarrek bakoitzak bere bozka emango dugula. Nik Aralarren izenean bakarrik esan Aralar espetxearen aurkako plataformaren barruan dagoela eta mozioarekin guztiz ados gaudela, beraz aldeko botua emango diodala

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Cristina,

CRISTINA FORCADA UNANUE AND.: Suscribo las palabras no voy a repetir lo mismo que ha dicho Emiliano, prácticamente sabemos que Martutene está en las condiciones que está, esta cárcel que se va a hacer es para mejorar las condiciones de los internos que hay allá y es primordial, el voto va a ser en contra de esta moción,

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Eta guk berriz EA bezala aldeko botua emango dugu eta ez noa gehiago errepikatzera, errepikatu dituztela,

Hemendik aurrera bigarren turnoa irekiko da eta orain zu hasten zara berriz eta bi minutu bakoitzak,

ANDONI ETXANIZ OSA JNA.: Emilianok komentatu duenaren arabera, makroespexea deitzen den edo zer izen duen, baita ere izenekin beti egoten da bultzatzaileak izen bat jartzen dio normalean eta beste erakunde edo beste erabile batzuk beste erabatetara ulertzen dute deitu beharko litzatekeela, Zubietako errazgailua, Zubietan berriro ere, batzuk centro de valorización energética deitzen diote baina errazgailu bat da eta Zubietakoa gure ustez makroespexe bat da.

Makroespexearen aurka egoteak ez du esan nahi Martutenen dauden presoan baldintzak edo bizi baldintzak meioratu behar ez direnik, gu ere noski guztiz ados gaude, Martutenek egoera onera egin beharko lukeela eta han presoak oso egoera kaxkarrean daudela, baina presoak egoera hobeto baten eduki ahal izateko, noruntz edo nola egin behar den hori ere adostu beharko da eta hortan da gu ados ez gauden puntuan, ez meioratu behar ez denik, baizik eta Makroespexearen proiektu hauek eta eredu hau ez zaigu egokia iruditzen eta horregatik mozio hau nola ez aurkeztu dugunez guk ere aldeko bozka emango dugu,

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Bigarren txandan, norbaitek hitzegin nahi du, M. Eugeniak ez; Emiliano...; Xabierrek ez, Cristinak ere ez, Andonik hitzegin du, guk ere ez,

SR. EMILIANO GONZALEZ CABAÑAS.: En contra de la moción, vamos..

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Bozkatzera pasako gara, Emilianok kontra, M. Eugenia?

M. EUGENIA ARRIZABALAGA OLAIZOLA AND.: Alde

ALKATE-LEHENDARIA.: Aldeko botua, Aralarre-k?

XABIER OLAIZOLA ANTIA JNA.: Alde

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Aldeko botua, Ezker-Batuak?

CRISTINA FORCADA UNANUE AND .: Kontra

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Kontrako botua, Andoni?

ANDONI ETXANIZ OSA JNA.: Ezker Batuak kontrakoa eskatu du, eta guk Alde,

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Alde eta EAk ere aldekoa,

#### ERABAKI ZATIA

Aldeko botuak: 10 botu (4 PNV; 1 Aralar; 1 Andoni Etxaniz Osa, 1 Nerea Epelde Azkue, 1 Joseba Josu Azpiazu Azkarraga; 2 EA )

Aurkako botuak: 3 (1 EB-Berdeak; 2 PSOE)

Abstentzioak: 0

LEHENENGOA: MAKRO-ESPETXEEN KONTRAKO PLATAFORMAREN MOZIOA ONARTZEA,

#### PARTE RESOLUTIVA

Votos a favor: 10 (4 PNV; 1 Aralar; 1 Andoni Etxaniz Osa, 1 Nerea Epelde Azkue, 1 Joseba Josu Azpiazu Azkarraga; 2 EA)

Votos en contra: 3 (1 EB-Berdeak; 2 PSOE)

Abstenciones: 0

PRIMERO: APROBAR LA MOCION DE LA PLATAFORMA CONTRA LAS MACROCARCELES.

**BIGARREN MOZIOA: E.A.-k aurkeztutako mozioa: GIZA ESKUBIDEEN ADIERAZPEN UNIBERTSALA.**

Lehen esan dut ez dudala irakurriko edo saiatuko naizela ez irakurtzen eta ez dut egingo, bakarrik esan Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren 60. urteurrena bete zela eta guzti horregatik dagoeneko abenduan 10ean kunplitu zen eta iruditu zitzaigun bere horretan mozioa sartzeko nahiko arrazoi bazeudela, ez?

Zentzu horretan aldarrikapen bat da, zaila izaten delako gauden mundu honetan mundu guztiko dauden kultura desberdinarekin etbr.. bateratzen eta ikuspuntu desberdinak toki amankomun batean jartzen eta une historikotzat bezala hartzen da orain dela ba.. horixe 60 urte hainbat nazio gutxieneko aldarrikapen batzuk edo giza eskubide batzuk aintzatezte eta esatea horiek minimoak zirela eta horren oroimenez iruditzen zaigu horrelako aldarrikapen bat izan behar dutela han aldarrarian jartzen ziren giza eskubide horiek eta haren omenez eta iruditzen zaigulako oinarrizko giza eskubide horiek gutxieneko baldintzak direla gizabanakoen elkar trukeak edo elkar laneak aurrera eramateko, zentzu horretan iruditzen zitzaigun balioan jarri behar dela 60. urteurren hori ospatzeak eta betetzeak,

Besterik gabe, zuen iritzia, M. Eugenia,

M. EUGENIA ARRIZABALAGA OLAIZOLA AND.: Ba... Eusko Alderdi Jeltzailea betidanik egon da giza eskubide guztien, pertsona guztientzat izan behar duten giza eskubide guztien defentsan, eta beraz, logikaz baietzko botua emango dugu,

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Emiliano,

SR. EMILIANO GONZALEZ CABAÑAS.: En fin, no podemos estar nunca en contra de los derechos humanos, vamos nos sería imposible votar en contra, lo que pasa que entendemos que se juega siempre con los derechos humanos y antes lo hemos visto y si leemos la declaración total pues al final te pasa lo mismo y la verdad que es lamentable que se pretenda siempre utilizar los derechos humanos en base a lo que uno quiere o lo que uno piensa que deben de ser y no lo generalizar por lo que está escrito y está para todos, me parece muy bien que se quiera hacer una calle ó un parque ó lo que se crea más conveniente que se invita a todo el mundo, estupendo, pero a ver si alguna vez cuando hablamos de derechos humanos dejamos de tratar de meter la pugna para tratar de barrer sobre algo que yo quiero o dejo de querer, los derechos humanos precisamente porque son humanos, precisamente porque son humanos y todos los somos, son para todos iguales en todos los sentidos y en todos los

momentos, eso es lo que realmente deberíamos tener en cuenta, por lo tanto no podemos decir que no pero nos fastidia que siempre haya siempre esa puya ahí metida cuando no tiene sentido.

XABIER OLAIZOLA ANTIA, JNA.: Bakarrik esan, guztiz ados gaudela eta aldeko botua emango diogula,

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Andoni,

ANDONI ETXANIZ OSA JNA.:Giza Eskubideetako Adierazpen Unibertsalaren inguruan hitzegiten hasi behar bagara, nik mahai honetara ekarri nahi dut, orain ez dela denbora asko kontu hauetaz aditua den pertsona baten hitzak, pertsona hau Martin Scheinin da Martin Scheinin Terrorismoaren Kontrako Borrokan Giza Eskubideak Bermatzeko NBEko kontalari berezia, 26 orrialdeetako txostena osatu du gizon honek, eta hamahiru aholku zehatz eman dizkio Espainiari. Martin Scheinik dio Espainiak ez dituela giza eskubideak behar bezala errespetatzen eta hau «terrorismoaren kontrako borrokan» Giza Eskubideak Bermatzeko kontalari bereziak esaten du, ONUko kide batek, eta ez dut nik esaten. Martin Scheinin dio baita ere Espainiak ez dituela behar bezala errespetatzen Terrorismoaren kontrako borrokan ari denean Terrorismo terminoa gehiegi zabaltzen duela, parte-hartze politikorako eskubideak urratzen dituela, inkomunikazio aldia ez kentzea eta tortura salaketak ez ondo aztertzea egozten dio, besteak beste, eta hau Estatu bati dio Martin Scheinek. Euskal presoen zigorrak ere gehiegi luzatzea ere, hori ere egozten dio eta Espainiako Auzitegi Nazionalaren betekizuna ere kritikatzeko du.

Espainiako Gobernuak ez dago derrigortuta NBEko kontalariak emandako aholkuak betetzera. Baina Scheinin txostena ez da nazioarteak Espainiari egiten dion lehen ohartarazpena. Horregatik, Espainiak gero eta presio handiagoa dauka eskaerei men egiteko.

Terrorismo terminoa, adibidez

Espainiak terrorismo terminoaz egiten duen erabilera ez dela zuzena dio Scheininek. Giza Eskubide eta Eskubide Politikoen Nazioarteko itunaren 15. atikuluan jasotakoa betetzea beharrezkoa dela adierazten dio, beraz, hemen Giza Eskubide eta Eskubide Politikoen Nazioarteko itunaren ez betetzen bat salatzen du, eta erabiltzen dituen terminoak ondo definitzeko eskatu dio. Zehazki, Zigor Kodeko 571tik 579ra bitarteko artikulua berrikusteko eskatu dio Espainiako Estatuari

Adierazpen askatasuna eta biltzeko askatasunari, horren inguruan Martin Scheinek dio «Terrorismoaren kontrako neurriak ez direla erabili behar gobernuz kanpoko erakundeen, komunikabideen eta alderdi politikoen kontra». Zigor Kodean «talde terroristez» hitz egiten den arren talde horiek zein diren zehazteke dagoela salatu du.

Alderdien Legeak zehaztasun faltak ditu. Ondorioz, «talde terrorista» baten helburu antzekoak izan eta bake bideetatik ari den alderdi bat legez kanpo uzteko arriskuaz ohartarazi du NBetako kontalariak. Alderdien Legea adierazpen askatasunari buruzko nazioarteko legedira egokitzeko aholkua ematen dio, beraz, hemen ere esaten duena da ez dagoela egokituta alderdien legea ez dago egokituta Adierazpen Askatasunari buruzko Nazioarteko legedira. Eta hau Martin Scheinek esaten du eh! Hau ez dut nik esaten.

Inkomunikazioa,

Inkomunikazioa kentzeko eskatu dio Espainiari. Atxilotuak inkomunikatuta dauden bitartean «debehatutako tratuak» emateko arriskua dagoela uste du, eta, gainera, inkomunikazioa dagoen bitartean Espainiak tortura salaketei aurre egin beharko diela aurreikusten du, horrek «terrorismoaren kontrako borrokari zilegitasuna kentzen» diolarik. Tortura ekiditeko neurriak sistematikoki ezartzeko eskatu dio Espainiari, bideo zaintza jartzeko eta atxilotuei konfiantzako medikuekin egoteko aukera emateko zehaztuta. Ertzaintzak protokolo bat baduela ekarri du gogora, baita Auzitegi Nazionalako epaile batzuek beste protokolo bat erabiltzen dutela ere.

Baina neurriak ez dituzte epaile guztiek ezartzen, hori ere salatu du. Eta neurri horiek eraginkorrak direla ere jakin, badakigu.

Auzitegi Nazionala

«Arazotsua» da, Scheininen ustez, «terrorismo gaietan» eskuduntza duen auzitegi espezializatu bakarra Espainiako Nazionala izatea, Auzitegi Nazionala. Han epaitutako auzietan kasazio helegitea besterik ezin daitekeela jarri ekarri du gogora, eta Giza Eskubideen Batzordeak prozedura horiek ezegokitzat dauzkala azpimarratu du, Helegiteak jartzeko aukerak berrikusteko eskatu du, eta arreta berezia jartzeko Nazioarteko ituna betetzen.

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Andoni bost minutu oraintxe pasa dira,

ANDONI ETXANIZ OSA JNA.: Bai Terrorismo gaiak beste auzitegi batzuetara bideratzeko aukera aztertzeke ere eskatu dio. Espetxe politikan ere gauza asko esan ditu Martin Scheinek baina bueno bukatzen joan behar

naizenez, espetxe politikoaren kontutaz ez naiz horren luze arituko, soilik Familientzat arriskua eta karga ekonomikoa ere badela dio eta defentsa efektiboa egiteko ere arazoak sortzen dituela,

Beraz, Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalean jasotzen direnak, Espainiako Gobernuak errespetatzen ez dituelarik, Mozio hau dugu mahai gainean, eta mozio honen alde ziur nago guztiok bozkatuko dugula. Terrorismoaren Kontrako Borrokan Giza Eskubideak Bermatzeko NBEko kontalariaren aholkuei Espainiako Estatuak inongo kasurik egiten ez dion bitartean, alderdi sozialistak mozio hau Udaletxe askotan onartuko du, eta horrek adierazten du mozio honen neurria, mozioa ez doa arazoaren muinetara, NBEko kontalariaren txostena ordea bai.

Mozio honi, Martin Scheinin Terrorismoaren Kontrako Borrokan Giza Eskubideak Bermatzeko NBEko kontalariak alderdi sozialistari jarri dizkion etxeko lanak behingoz egin ditzala eskatzea falta zaio, hala ere babestuko dugu.

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Bigarren turnoa irekiko dugu, M. Eugenia?, ezerrez ; Emiliano? Ezerrez ; Ezker-Batua Aralar ? Ezerrez ; zuek ere gehiago ezerrez ?, guk ere ezerrez, Bozkatzera pasako gara, gure aldeko botua, M. Eugenia?

M. EUGENIA ARRIZABALAGA OLAIZOLA AND.: Aldeko botua

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Aldeko botua, Emiliano?

SR. EMILIANO GONZALEZ CABAÑAS.: A favor

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Aldekoa, Ezker-Batua Aralar?

XABIER OLAIZOLA ANTIA JNA.: Aldekoa,

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Aldekoa, Andoni?

ANDONI ETXANIZ OSA JNA.: Aldekoa,

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Aldekoa eta EA-ere aldekoa, esan dut.

## ERABAKI ZATIA

Aldeko botuak: 13 botu (4 PNV; 2 EB-BerdeakAralar; 2 PSOE; 1 Andoni Etxaniz Osa, 1 Nerea Epelde Azkue, 1 Joseba Josu Azpiazu Azkarraga; 2 EA )  
Aurkako botuak: 0  
Abstentzioak: 0

LEHENENGOA: GIZA  
ESKUBIDEEN ADIERAZPEN  
UNIBERTSALAREN MOZIOA  
AHO BATEZ ONARTZEA,

## PARTE RESOLUTIVA

Votos a favor: 13 (4 PNV; 2 EB-BerdeakAralar; 2 PSOE; 1 Andoni Etxaniz Osa, 1 Nerea Epelde Azkue, 1 Joseba Josu Azpiazu Azkarraga; 2 EA)  
Votos en contra: 0  
Abstenciones: 0

PRIMERO: APROBAR POR  
UNANIMIDAD, LA MOCION  
SOBRE LA DECLARACION  
UNIVERSAL DE LOS  
DERECHOS HUMANOS.

Hirugarren mozioa:

**INAXIO URIA MENDIAZABAL JAUNAREN HILKETA DELA ETA  
EAJ-PNV-k aurkeztutako mozioa. M. Eugenia,**

M. EUGENIA ARRIZABALAGA OLAIZOLA AND.: Guk ere aurrekari batzuk aipatu nahiko genituzke

Abenduaren 3an hil zuen Azpeitian arratsaldeko laurak edo hirurak aldean, ordubiak aldean usten dut, Inaxio Uria ETA-k, eta abenduaren 5ean sartu genuen Eusko Alderdi Jeltzaileko udal taldekook mozio hau, hemen, udaletxeko erregistroan. Harrezkero, eta sartu genuen pentsatuz abenduan bertan izango zela plenoren bat, ez zen izan ezta urtarrilean ere, eta otsailaren erdialdera tokatzen zaigu tratatzea beste doenerdi bat edo gehiago mozioren artean. Zergatik sartu genuen mozio hau?, ez genuen hemen bakarrik sartu, Gipuzkoako Herri gehienetan nahiz eta seguruenik ez guztietan, eta hau diot lehengoan Andoni Etxaniz-ek bozeraemaileen batzordean, adibidez, Zestoako kasua aipatzen zigulako, baina bai ikaragarria esan zuelako, urre geundelako, kilometroak ez dutelako zerikusirik izan behar horrelako kontuetan, ez da pertsonak ere, Giza Eskubide guztien alde gaudelako eta ez dugulako ontzat ematen horrelako gertakarien aurrean jendea, eta batez ere udal agintariak, edo agintariak orohar, isilik geratzea.

Aurkeztu, zuen hilketaren egun bertan, alderdiak, Azpeitiko udaletxean. Eta alderdiko aldeko botua ez ezik, orduan baita Eusko Alkartasuna eta Aralarreko aldeko botua ere jaso zuen, ANV-koa ez. Irakurriko dut laburra da eta

INAXIO URIA MENDIZABAL  
JAUNAREN HILKETA DELA-  
ETA EAJ-PNVko UDAL  
TALDEAK AURKEZTUTAKO

Zumaiako udalbatzak, Inaxio Uria Mendizabal jaunaren hilketa dela adierazten du:

1.- Zumaiako udalak bere erabateko gaitzespena adierazten du hilketa honen aurrean.

2.- Inaxio Uria Mendizabalen senitarte eta lagunei gure doluminak eta gure elkartasuna adierazi nahi diegu momentu gogor hauetan.

3.- Euskal enpresariei gure gertutasuna helarazten diegu eta gure herriaren etorkizunaren eta ongizatearen alde egiten ari diren lana eskertzen diegu.

4.- Indarkeriak gaitzespena besterik ez du sortzen euskal gizartean; eta erabiltzen dutenak berron honen nahien aurka jartzen dira, bakea eta normalizazio politikoaren aurka.

5.- Bide bortitzen erabilpenean tematzen direnak, —armak uzteko eskariei entzungor eginez— euskal gizartearen mesprezua besterik ez dute lortuko.

6.- ETA soberan dago eta euskal gizarteari bere etorkizuna askatasunean eraikitzen utz diezaiola exijitzen diogu.

MOCION DEL GRUPO  
MUNICIPAL DE EAJ-PNV  
TRAS EL ASESINATO DE  
INAXIO URIA MENDIZABAL

El Ayuntamiento de Zumaia, con motivo del asesinato de Inaxio Uria Mendizabal, manifiesta lo siguiente:

1.- El Ayuntamiento de Zumaia expresa su condena más rotunda ante este asesinato.

2.- Expresa sus condolencias más sentidas y su solidaridad a la familia y a los amigos de Inaxio Uria Mendizabal.

3.- Reafirma su cercanía y apoyo al empresariado vasco y les hace llegar su agradecimiento por el trabajo que realizan a favor del futuro y el bienestar de nuestro pueblo.

4.- La violencia no produce otra cosa que condena por parte de la sociedad vasca; y quienes la usan actúan en contra de este Pueblo, en contra de la paz y de la normalización política.

5.- Quienes se empeñan en seguir por el camino de la violencia, haciendo oídos sordos a la exigencia de que dejen las armas, no conseguirán otra cosa que el desprecio de la sociedad vasca.

6.- ETA sobra, y le exigimos que, de una vez, deje a la sociedad vasca construir su futuro en libertad.

Eta horixe da, guk gaur honera dakarkigun mozioa,

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Emiliano,

SR. EMILIANO GONZALEZ CABAÑAS.: Vamos a votar a favor, sólo cabe decir lo de tarde como ha explicado ya M. Eugenia, otras dos cosas por nuestra parte, aquí están los Derechos Humanos reflejados y está la posible contestación a la persona que ha redactado lo que tú anteriormente has leído.

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Ezker-Batua Aralar,

XABIER OLAIZOLA ANTIA JNA.: Bakarrik esan ados gaudela mozioarekin eta aldeko botua emango diogula,

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Andoni,

ANDONI ETXANIZ OSA JA.: Emilianok esan du, mozio honetan Martin Scheiniri erantzuten zaiola neurri batean edo baino guri iruditzen zaiguna da mozio honetan batzuk norberaren diskurtso politikoa indartzea besterik ez dutela helburu, guk gure irakurketa propioa egingo dugu, mozio honetan agertzen diren afirmazio batzuekin ez gaude ados inondik inora, adibidez,

ETA-k euskal gizarteari bere etorkizuna askatasunean eraikitzen uzten ez diola eta hemendik ondorioztatu daiteke eta egongo ez balitz askatasuna libreki, gure erabakia libreki hartzeko aukera edukiko genuela, akordarazi nahi dut hemen Euskadin, Erkidegoan Lege bat onartu zela Legebiltzarrean eta Legebiltzar hori topo egin zuen Auzitegi Konstituzionalarekin eta Auzitegi Konstituzionala Espainiako Legedia eta Espainiako Estatuak dira Euskalerrinari bere etorkizuna libreki erabakitzen uzten ez diona, beraz, nik behintzat ezin dut horrelako afirmazioekin ados egon zeren azken finean guztiz zorigaiztokoak diren gertaera batzuk norberaren diskurtso politikoa indartzeko eta norberaren posizio politikoa indartzeko bakarrik erabiltzen direla ikusten dugu, horretarako bakarrik ez, Zumaiako Gobernuari ere kritika politikoa egiteko erabiltzen da, berandu ekartzen dugulako eta kilometroek ez dutelako inongo eskusarik jartzen, hemen baino kilometro gutxiagora egongo da Zumaia baino Zestoako udala eta bestean esan nuen bezala Zestoako udalean oraindik sarrerarik ere ez zaio eman, gu baino pixkat urrutiago Getariako udala dago eta Getariako udalean ez dira

hamabost egun pasa mozio hau tratatu zutela, Getarian nik dakidala PNV dago Gobernuan, beraz badirudi Zumaiako Gobernuak egiten dituenak egiten dituela guztiak direla kritikagarriak baina hori ere ez da kontua eta guk gure irakurketa egingo dugu,

Gertakarien aurrean irakurketa

Ezker abertzaleak, kezka ikusten du Euskal Herrian dagoen egoera politiko eta soziala, non, blokeoak, konfrontazioak eta eskubideen urraketak, ahalegin berezia eskatzen duten behin-betiko konponbidea lortzeko.

Gertatutakoak, indarkeriaren adierazpen guztiek bezala, gatazkari benetako eta behin betiko konponbidea emateko beharra areagotzen du, herri honen eta herritarren eskubide guztiak errespetatuak izango diren eszenatoki demokratiko baten beharra, hain zuzen ere.

Ezker Abertzaleak konponbidera eramango gaituen benetako marko demokratikoaren baten aldeko apustua egiten du, gatazkaren erroetara jo eta gertakari hauek zein gatazkak sortzen dituen indarkeri adierazpen guztiak gaindituko dituen eszenatoki bat ekarriko duena.

Ezker Abertzaleak arduraz jokatzeko dei bat egiten du, konponbide demokratikoaren aldeko apustua egiten du eta proiektu politiko guztiak demokratikoki gauzatzeko eszenatokia ahalbideratuko duenaren alde apustua egiten du.

Ezker Abertzaleak bere esku dagoen guztia egingo du gatazka behin betiko konponduko duen akordio politiko zabal baten alde Euskal Herriko herritarrek bere etorkizuna libreki eta demokratikoki erabakitzeko eskubidea errespetatuko duen akordioa, hain zuzen ere.

Beraz, guk mozio hau ez dugu babestuko zeren berriro ere mozio hau idazteko egin den diagnosis eta eman zaion irakurketa politikoarekin bat ez gatoz, beraz, guk onartzen ez duguna da mozio hau eta mozio hau ez onartzetik beste batzuk ateratzen dituzten konklusioak ere beroiek jakingo dute zergatik ateratzen dituzten.

**ALKATE-LEHENDAKARIA.:** Guk berriz adierazi, bapateko adostasuna, erabateko adostasuna, beste gauza batzuren artean lehenago aipatu baldin badugu Giza Eskubideen defentsa direla Giza Banakoen elkar ulermenerako gutxieneko baldintzak, pertsona bat hiltzea noski baita ere urraketa garbi bat, Giza Eskubideen urraketa garbia dakarrelako.

Eta beste gauza batzuren artean ETA-k egiten duena da etikoki salagarria den hori eta esaten ari naizen hori aurrera eraman eta guztiz kritikagarria da eta izan behar du eta bigarren eta askotan aipatu izan dugun bezala, politikoki ere berak dion helburuetatik askoz ere gehiago urruntzen gaitu. Orain dela 30 urte berak zioen helburu horiek lortzeko usten baldin bazuen herria bere alde zegoela, 30 urte igaro ondoren herria gero eta urrunago aurkitzen da, ETA-k aurrera eramaten duen jardun bide horri.

Eta ETA itsu dago, entzungor dago ez dio Herri honi begiratzen, entzuten eta zoritxarrez horrelako gertakariak gertatzen dira, Inaxioren, beste zortzirehun edo bederatzirehun historian zehar izan direnak eta beste hainbat zapalketa ere bai noski, baina zapalketa bakoitzaren aurrean gure jarrera garbia izan behar du, zapalketa bakoitzari oinarrizko eskubide defentsaren edo oinarrizko eskubide bat urratzen den bakoitzean, beti gure postura garbia behar du izan, garbia den bezala eta garbia izango den bezala.

Zentzu horretan aipatu da Gobernu honek berandu dakarrela mozio hau, hona, nik bakarrik gauza bat esan nahi dut, garbi geratu zen bere garaian, mozio politikoak bakarrik baldin bazeuden plenorik ez zela egingo, bat, eta bigarren Andonik ondo aipatu duen bezala beste herrietan ere –sin ser sospechosos de nada- zeren ematen du azkenean ez dakit zerren erru garena eta gure erruduntasunak argitu edo pulitu behar ditugula, beste herri batzuetan ere berriz diot EA-k gobernatzen duen edo ANV-k gobernatzen duen beste herrietan, Zestoan edo Getarian edo aprobatu berri dituzte edo aprobatekotan daude mozio hau, beraz, guk ez daukagu inorren aurrean azalpenik eman beharrik, besterik gabe, M. Eugenia

M. EUGENIA ARRIZABALAGA OLAIZOLA AND.: Bai, gauza bat argi geratzen da, eta da inguruetako herriei hurretik begiratzen diezutela, gu udaletxe honetako kide gara eta guk udal honetan egiten dugu gure lana, bai oposiziokoa, bai mozioak ezartzerakoan, eta bai, tokatzen zaigunean, aldekoa ere, eta ez gara hainbeste kezkatzen gainontzeko Herrietan harek eta honek zer egin duenari buruz, beste gauza batzuren artean ez digulako ezer aportatzen eta denbora galtze ederra delako, bakoitzak jakingo du zer egiten duen. Guk sartu genuen abenduaren 5ean mozio hau eta gaur da... otsailaren hamaseia, eta bi hilabete ondo luzeak joan dira bitarte honetan. Mozioak batzuk ez, baino beste batzuk bai, izaten dute bueno, ez dut esango bere momentua, zeren momentua hilketa bat gaitzesteko edozein da hona, baina bai egia da gauzak gertatzen diren neurrian erantzutea egokiagoa izaten dela, eta

Bestaldetik Ezker Abertzalearen erantzuna, Ezker Abertzalearen bi hitz faboritoak beti izan dira, “gatazka” gaur egun, eta garai batean akordatzen naiz “kontestua” zela. Horiek dira Ezker Abertzaleari gehien gustatzen zaizkion hitzak, inora ez daramaten hitzak, zurrunbiloan jira eta bueltaka ibiltzeko bakar-bakarrik balio duten hitzak, mila aldiz entzunda dauzkagunak, eta irtenbiderik ez dutenak. Beti ere “gatazka” aipatu, gaur lau edo bost aldiz aipatu duzu edo bere kasuan “kontestua”: gatazkaren eraginez sortutakoa kontestuaren ondorioz dena. Ez, batek pistola bat hartu kristau batena joan eta kale erdian lau tiro jotzen badizkio buruan, hori ez gatazka ez kontestu, hori da bateren batek pistola hori hartu egin duelako eta tiro horiek bota dituelako eta bertan akabatu duelako pertsona hori, eta

badela garaia ezertarako balio ezezik, bakarrik minaren eta sufrimenduaren manibelari eragiteko balio duten hitzak, alde batera utzi eta benetako konponbideak eta benetako, erabili beharreko hitzak, erabiltzeko

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Emiliano? Ezerrez; Ezker-Batua Aralar? Ezerrez; Andoni? Ezerrez; nik bai

Bakarrik adierazteko gauza bat, aldameneko herritarrei edo herriei ez diegula begiratu kapritxo ez! Begiratu diegu denok dakigun bezala zuek sospetxa bat jartzen duzuelako Gobernu honen gain eta interpretazioa egiten duzutelako, ANV nola gobernuan dagoen berandu datorrela, horregatik begiratzen diogu beste herriei non ANV-k gobernatzen ez duen eta zuen alderdiak gobernatzen duen, horregatik bakarrik ez besterik. Besterik gabe bozkatzera pasako gara, M. Eugenia?

M. EUGENIA ARRIZABALAGA OLAIZOLA AND.: Aldeko botua

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Aldeko botua, Emiliano-k?

SR. EMILIANO GONZALEZ CABAÑAS.: A favor

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Aldekoa botua, Ezker-Batua Aralar?

XABIER OLAIZOLA ANTIA JNA.: Aldeko botua,

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Aldeko botua, Andonik?

ANDONI ETXANIZ OSA JNA.: Kontrako botua

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Kontrako botua eta EA-k aldeko botua,

ERABAKI ZATIA

PARTE RESOLUTIVA

Aldeko botuak: 10 botu (4 PNV; 2 EB-BerdeakAralar; 2 PSOE; 2 EA )

Aurkako botuak: 3 (1 Andoni Etxaniz Osa, 1 Nerea Epelde Azkue, 1 Joseba Josu Azpiazu Azkarraga)

Abstentzioak: 0

Votos a favor: 10 (4 PNV; 2 EB-BerdeakAralar; 2 PSOE; 2 EA)

Votos en contra: 3 (1 Andoni Etxaniz Osa, 1 Nerea Epelde Azkue, 1 Joseba Josu Azpiazu Azkarraga)

Abstenciones: 0

LEHENENGOA: INAXIO URIA MENDIZABAL JAUNAREN HILKETA DELA ETA AURKEZTUTAKO MOZIOA ONARTZEA.

PRIMERO: APROBAR, LA MOCION PRESENTADA TRAS EL ASESINATO DE INAXIO URIA MENDIZABAL,

Laugarrenko mozioa:

**EB/ARALARrek aurketutako mozioa: UEMAn sartzea**

Xabier,

XABIER OLAIZOLA ANTIA JNA.: Ez dut irakurri nik, azkar-azkar bakarrik esan badagoela Mankomunitate bat, Udalerri Euskadin Mankomunitate bat euskararen normalkuntzan lanean diharduena, eta herriak baldintzak bete behar ditu Mankomunitate horretan sartzeko eta Zumaiak betetzen dituen, guri iruditzen zaigu hona izango litzatekeela Zumaia Herriko udala Mankomunitate honetan, amankomunatzea, besterik gabe irakurri nezaket guztia baina ez dut irakurriko, besterik gabe

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Norbaitek zerbait esateko, M. Eugenia,

